

# 12

## ERRENTAREN BANAKETA

---

## DISTRIBUCIÓN DE LA RENTA

Patricia Peinado Martínez (\*)

---

(\*) **Ekonomia eta Enpresa Zientzietako Fakultateko irakasle. Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU).**  
Profesora de la Facultad de Ciencias Económicas y Empresariales. Universidad del País Vasco (UPV).

## ÍNDICE

1. INTRODUCCIÓN
2. RENTA PERSONAL Y FAMILIAR
  - 2.1. Renta personal nominal y real
  - 2.2. Renta familiar nominal y real
  - 2.3. La renta disponible
3. DISTRIBUCIÓN TERRITORIAL DE LA RENTA
  - 3.1. Distribución territorial de la renta por territorios históricos
  - 3.2. Distribución territorial de la renta por municipios
  - 3.3. Distribución territorial de la renta por barrios de residencia de las capitales
4. DISTRIBUCIÓN DE LA RENTA POR EDAD Y GÉNERO
  - 4.1. Distribución de la renta por edad
  - 4.2. Distribución de la renta por sexo
  - 4.3. Distribución de la renta familiar por sexo del perceptor principal
  - 4.4. Distribución de la renta por edad y sexo
5. DISTRIBUCIÓN DE LA RENTA POR LUGAR DE NACIMIENTO Y NACIONALIDAD
  - 5.1. Distribución de la renta por lugar de nacimiento
  - 5.2. Distribución de la renta por nacionalidad
6. CONCLUSIONES

## AURKIBIDEA

1. SARRERA
2. PERTSONEN ETA FAMILIEN ERRENTA
  - 2.1. Pertsonen errenta nominala eta erreala
  - 2.2. Familien errenta nominala eta erreala
  - 2.3. Errenta erabilgarria
3. ERRENTAREN LURRALDE-BANAKETA
  - 3.1. Errentaren lurralde-banaketa, lurraldez lurralde
  - 3.2. Errentaren lurralde-banaketa, udalerriz udalerriz
  - 3.3. Errentaren lurralde-banaketa hiriburu- eta udal-eremuetan
4. ERRENTAREN BANAKETA ADINAREN ETA GENEROAREN ARABERA
  - 4.1. Errentaren banaketa adinaren arabera
  - 4.2. Errentaren banaketa sexuaren arabera
  - 4.3. Familien errentaren banaketa, jasotzaile nagusiaren sexuaren arabera
  - 4.4. Errentaren banaketa adinaren eta sexuaren arabera
5. ERRENTAREN BANAKETA JAIOTERRIAREN ETA NAZIONALITATEAREN ARABERA
  - 5.1. Errentaren banaketa jaioterriaren arabera
  - 5.2. Errentaren banaketa nazionalitatearen arabera
6. ONDORIOAK

## 1. INTRODUCCIÓN

Este capítulo tiene como objetivo describir la distribución de la renta en la C.A. de Euskadi a partir de los datos suministrados por la Estadística de Renta Personal y Familiar de los años 2001, 2003 y 2006 elaborada por Eustat en colaboración con las diputaciones forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa. El objeto principal de la estadística de Renta Personal y Familiar es ofrecer un análisis de la población de la C.A. de Euskadi de 18 y más años uniendo la perspectiva económica a la sociodemográfica. Así, se ofrecen estimaciones de las variables de renta personal y familiar atendiendo a distintas características sociales y demográficas como son el lugar de residencia, la edad, el género, el lugar de nacimiento o la nacionalidad de las personas. Pues bien, el estudio que se presenta a continuación aborda el análisis de la distribución de la renta atendiendo a estas características.

El capítulo está dividido en cinco apartados y uno final de conclusiones. En el segundo epígrafe se describe la composición de la renta de acuerdo con las diversas fuentes que la componen. El tercer epígrafe desarrolla el análisis tomando en consideración la variable espacial, tanto interterritorial como intraterritorial, siendo la unidad de análisis cada uno de los territorios históricos que conforman la C.A. de Euskadi. En el cuarto epígrafe se describe la distribución de renta diferenciando por la edad y género de los perceptores. El quinto epígrafe analiza la distribución de la renta atendiendo, por una parte, al lugar de nacimiento de los perceptores y, por otra, a la nacionalidad de los mismos. Al final del capítulo se redactan las conclusiones más relevantes extraídas del estudio.

El análisis realizado a lo largo de todo el capítulo añade tres perspectivas novedosas en relación con los informes anteriormente publicados. En primer lugar, la distribución de la renta se analiza desde una perspectiva temporal. Así, la distribución de la renta se describe tanto desde una perspectiva estática, esto es para el último periodo disponible (2006), como desde una perspectiva dinámica, es decir, comparándola con los años que le preceden disponibles (2003 y 2001). En segundo lugar, el análisis se lleva a cabo diferenciando por renta personal y renta familiar, de manera tal que pueden observarse las similitudes y diferencias existentes entre ambas. En tercer lugar, los datos se analizan atendiendo a las diferencias tanto interterritoriales como intraterritoriales existentes; esto es, las diferencias existentes cuando se comparan los distintos territorios históricos que conforman la C.A. de Euskadi (interterritorial), por una parte, y, por otra, las diferencias existentes dentro de cada uno de los territorios históricos (intraterritorial).

Una de las limitaciones del análisis se halla en la imposibilidad de realizar comparaciones con otros países o regiones. Para poder realizar un estudio comparativo de estas características es necesario que las mediciones se hayan realizado bajo los mismos procedimientos y criterios. Si bien las fuentes estadísticas (y los cálculos que con ellas se realizan) tienden a la

## 1. SARRERA

Kapitulu honen helburua Euskal AEko errentaren banaketa deskribatzea da, 2001, 2003 eta 2006. urteetako Pertsonen eta Familien Errentaren Estatistikak ematen dituen datuetan oinarrituta. Inkesta hori Eustatek egiten du, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru aldundiaren laguntzaz. Pertsonen eta Familien Errentaren estatistika honen helburu nagusia Euskal AEko 18 urtetik gorako biztanleriaren analisia egitea da, ikuspegi ekonomikoa eta soziodemografikoa uztartuz. Horrela, pertsonen eta familien errentaren aldagaien zenbatespenak eskaintzen dira, zenbait ezaugarri sozial eta demografiko kontuan izanik, hala nola, pertsonen bizilekua, adina, generoa, jaioterria edo nazionalitatea. Bada, hemen aurkeztuko dugun azterlanak errentaren banaketaren analisia aztertzen du, ezaugarri horiek kontuan izanik.

Kapituluak bost atal dauzka, ondorioak azaltzen dituen seigarren atal batekin. Bigarren epigrafean, errentaren osaera deskribatzen da, hura osatzen duten iturrien arabera. Hirugarren epigrafeak espazioaren aldagaia kontuan izanik (bai lurralde artekoa bai lurralde barrukoa) garatzen du analisia. Analis-unitatea Euskal AE osatzen duten hiru lurralde historikoetako bakoitza da. Laugarren epigrafean errenta banaketa deskribatzen da, jasotzaileen adina eta generoa bereiztuz. Bosgarren epigrafeak errentaren banaketa jasotzaileen jaioterriaren arabera eta haien nazionalitatearen arabera aztertzen du. Kapituluaren amaieran, azterlanetik ateratako ondorioak esanguratsuenak idatzi ditugu.

Kapitulu osoan zehar egindako analisiak hiru ikuspegi berri eskaintzen ditu argitaratutako txostenei dagokienez. Lehenik eta behin, errentaren banaketa denbora-ikuspegi batetik analizatzen da. Horrela, errentaren banaketa ikuspegi estatistikotik (hau da, datuak dauzkagun azken denboralditik, 2006) eta ikuspegi dinamikotik (hau da, datuak dauzkagun aurreko urteekin, 2003 eta 2001, alderatuta) deskribatzen da. Bigarrenik, analisia egiten denean, pertsonaren errenta eta familiaren errenta bereizten dira, bien artean dauden antzekotasunak eta ezberdintasunak ikusi ahal izateko moduan. Hirugarrenik, datuak aztertzean, lurraldeen artean nahiz lurralde baten barruan dauden ezberdintasunak kontuan izaten dira. Hau da, Euskal AE osatzen duten lurralde historikoak erkatzen dira (lurralde arteko ezberdintasunak), batetik, eta lurralde historiko bakoitzaren barruan dauden ezberdintasunak aztertzen dira bestetik (lurralde barrukoak).

Analisiaren mugetako bat da ezin dela egin konparaziorik beste herrialde edo erregio batzuekin. Honelako azterlan konparatiboan egin ahal izateko, neurketak prozedura eta irizpide bereberekin egin behar dira. Estatistika-iturriek (eta haiek egiten diren kalkuluek) herrialdeak homogeneousizatzeko joera dute, hain zuzen ere nazioarteko konparazioak ahalbideratze-

homogeneización entre países, precisamente, con el objetivo último de permitir la comparación internacional, la verdadera homogeneización dista aún de haberse alcanzado. Este hecho sucede, como caso no particular, para la renta. Ante esta realidad, por tanto, no es factible realizar comparaciones entre las rentas registradas para la C.A de Euskadi y las rentas registradas para otros países y regiones del modo en que están publicados tanto en el Instituto Nacional de Estadística de España (INE) como en el correspondiente para el caso de Europa (EUROSTAT).

ko, baina benetako homogeneotasuna oraindik ez da lortu. Hori, besteak beste, errentaren kasuan gertatzen da. Errealitate horren aurrean, beraz, ezinezkoa da Euskal AEn dauden errentak eta beste herrialde eta erregio batzuetan erregistratutako errentak alderatzea, ez behintzat Espainiako Estatistika Institutu Nazionallean (INE) eta Europakoan (EUROSTAT) argitaratuta dauden moduan.

## 2. RENTA PERSONAL Y FAMILIAR

### 2.1. Renta personal nominal y real

De acuerdo con los datos disponibles en Eustat, tal y como se observa en el gráfico 1, la renta personal media de las personas de 18 y más años en el año 2006 para la C.A. de Euskadi alcanza los 17.362 euros. De esta renta, la principal fuente es la proveniente del trabajo que representa el 63 por ciento de la misma. El 20 por ciento de la renta proviene de las transferencias percibidas. La tercera fuente de renta por orden de importancia es la derivada del capital mobiliario (10 por ciento), seguida de la derivada de otras actividades (6 por ciento) y de la relativa al capital inmobiliario (1 por ciento).

En lo que respecta a la evolución de la renta personal media de la C.A. de Euskadi a lo largo del periodo 2001-2006, se observa un incremento del 27 por ciento con respecto a la cifra registrada para el año 2003 (13.647 euros) y de un 37 por ciento con respecto al año 2001 (12.676 euros), lo que supone un incremento porcentual medio de la renta personal del 4 por ciento entre los años 2001 y 2003 y del 9 por ciento entre los años 2003 y 2006.

## 2. PERTSONEN ETA FAMILIEN ERRENTA

### 2.1. Pertsonen errenta nominala eta erreala


Eustatek dauzkan datuen arabera, 1. grafikoa ikusten denez, 18 urtetik gorako pertsonen batez besteko errenta pertsonala, 2006. urtean Euskal AEn, 17.362 eurokoa da. Errenta horretatik, iturri nagusia lanetik datorren errenta da, errentaren ehuneko 63 izanik. Errentaren ehuneko 20 jasotako transferentzietatik dator. Errentaren hirugarren iturria, garrantziaren arabera, kapital higikorretik datorrena da (ehuneko 10), gero beste jarduera batzuetatik datorrena (ehuneko 6) eta kapital higiezinetik datorrena (ehuneko 1).

2001-2006 denboraldian zehar Euskal AEn batez besteko errenta pertsonalaren eboluzioari dagokionez, ehuneko 27ko hazkundea ikusten da 2003. urteari dagokionez (13.647 euro), eta ehuneko 37koa 2001. urteari dagokionez (12.676 euro). Horrek esan nahi du errenta pertsonalak ehuneko 4ko batez besteko ehuneko hazkundea duela 2001 eta 2003. urteen artean, eta ehuneko 9koa 2003 eta 2006. urteen artean.

*Evolución de la renta personal nominal en la C.A. de Euskadi por tipo de renta*

1

*Pertsonen errenta nominalaren eboluzioa Euskal AEn, errenta-motaren arabera*



Iturria: Geuk egina, pertsonen eta familien errentaren estatistikan oinarrituta (Eustat).  
Fuente: Elaboración propia a partir de la Estadística de renta personal y familiar (Eustat).

Ahora bien, el hecho de que la renta nominal haya crecido, no necesariamente implica que la renta real, esto es la renta descontada por el componente de inflación, también lo haya hecho. Según el Instituto Nacional de Estadística (INE), el Índice de Precios al Consumo (IPC) en la C.A. de Euskadi experimentó un incremento del 6,9 por ciento entre los años 2001 y 2003 y del 9,7 por ciento entre los años 2003 y 2006, siendo este incremento igual al 17,3 por ciento cuando se compara el año 2001 con el 2006. Pues bien, esta evolución del nivel de precios permite convertir el dato sobre renta personal nominal en renta personal real, tal y como se observa en el gráfico 2. Concretamente, la *renta personal real* del año 2001 en términos del año 2006 asciende a 14.869 euros, mientras que la renta personal real del año 2003, en términos también del año 2006, asciende a 14.971 euros. Por lo tanto, la renta personal media en términos reales creció un 16 por ciento con respecto al año 2003 y un 17 por ciento con respecto al año 2001. Concretamente, esta evolución de la renta real implica una tasa media de crecimiento del 0,3 por ciento para el periodo 2001-2003 y del 5,3 por ciento para el periodo 2003-2006, lo que supone una tasa media de crecimiento a lo largo del periodo 2001-2006 del 3,4 por ciento.

El análisis pormenorizado de las distintas fuentes de renta permite concluir que la tendencia positiva no sólo se observa para el monto total de renta registrada, sino también para prácticamente todas y cada una de las particulares fuentes de renta que componen la renta total de los ciudadanos y ciudadanas vascas.

Pues bien, de todas estas fuentes de renta, la que presenta una *tasa de crecimiento nominal* (gráfico 1) más acusada es la relativa al «capital mobiliario». Concretamente, el incremento medio registrado para las rentas percibidas de este tipo de capital entre los años 2001 y 2003 es del 6 por ciento, mientras que entre los años 2003 y 2006 esta cifra alcanza el 35 por ciento. El incremento porcentual medio de las «rentas procedentes del trabajo» pasa de registrar un aumento del 4 por ciento en el primer periodo (2001-2003) al 7 por ciento para el segundo periodo (2003-2006). Si bien en términos porcentuales la evolución de las rentas provenientes de la actividad laboral o rentas del trabajo no alcanza la magnitud del capital mobiliario, en términos absolutos siguen siendo las rentas más importantes, puesto que representan para todos los años analizados la mayor parte de la renta personal total, esto es entre un 63 por ciento (año 2006) y un 67 por ciento (año 2001) de la renta total. En tercer lugar, cabe mencionar la evolución de la segunda fuente de renta por orden de importancia en términos del porcentaje que representa sobre el total de la misma. Es el caso de las «transferencias». La tasa de crecimiento medio de esta fuente de renta pasa de ser igual al 6 por ciento entre los años 2001 y 2003 a superar el 9 por ciento para el periodo comprendido entre los años 2003 y 2006. La cuarta fuente de renta más importante en magnitud, esto es la «renta de actividades», pasa de permanecer prácticamente inalterada en el periodo 2001-2003 a crecer en torno a 3 puntos porcentuales de media entre los años 2003 y 2006. Finalmente cabe mencionar la evolución experimentada por la fuente de renta «capital inmobiliario». La importancia de este tipo de renta, si bien en términos absolutos es la fuente que menos valor añade a la renta total, no debe ser desdeñada, especialmente en un contexto como el trascurrido durante los años previos a la crisis en los que el negocio inmobiliario cobra una importancia clave. De hecho, el crecimiento de las rentas procedentes del capital inmobiliario más que se duplica en el periodo 2003-2006 con respecto al primer periodo 2001-2003, siendo las tasas medias de crecimiento, respectivamente, del 10 por ciento y del 4 por ciento.

Baina errenta nominala hazi izanak ez du zertan esan nahi errenta erreala ere (hau da errenta, inflazioa kenduta) gehitu denik. Estatistikako Institutu Nazionalaren (EIN) arabera, Kontsumoko Prezioen Indizea (KPI) Euskal AEn ehuneko 6,9 gehitu zen 2001 eta 2003. urteen artean, eta ehuneko 9,7 2003 eta 2006. urteen artean. Hazkunde hori ehuneko 17,3 da 2001. urtea 2006. urtearekin alderatuz gero. Bada, prezioen mailaren bilakaera horrek pertsonen errenta nominalaren datua pertsonen errenta erreal bihurtzea ahalbideratzen du, 1a.2 grafikoa ikusten denez. Zehazki, 2001. urteko *personen errenta pertsonala*, 2006. urteko terminoetan, 14.869 eurokoa zen. 2003. urteko pertsonen errenta erreala, berriz, 2006. urteko terminoetan, 14.971 eurokoa zen. Horrenbestez, batez besteko errenta pertsonala, termino errealetan, ehuneko 16 gehitu zen 2003. urteari dagokionez eta, 2001. urteari dagokionez, ehuneko 17. Zehazki, errenta errealearen eboluzio honek ehuneko 0,3ko batez besteko hazkunde-tasa dagoela esan nahi du 2001-2003 denboraldirako, eta ehuneko 5,3koa 2003-2006 denboraldirako. Horrek esan nahi du 2001-2006 denboraldian zehar batez besteko hazkunde-tasa ehuneko 3,4koa izan zela.

Errenta-iturrien analisi xehatua eginez gero, ondorioztatzen dugu joera positiboa ez dela bakarrik atzematen erregistratutako errentaren zenbateko osoan, baizik eta euskal hiritarren errenta osatzen duten errenta-iturri bakoitzean ere bai.

Bada, errenta-iturri horietatik guztietatik, *hazkunde nominaleko tasa* handiena daukana (1. grafikoa) «kapital higikorrena» da. Zehazki, honelako kapital motarako errentetarako 2001 eta 2003. urteen artean erregistratu den batez besteko hazkunde ehuneko 6koa da; 2003 eta 2006. urteen artean, berriz, gehikuntza ehuneko 35ekoa izan zen. «Lanetik datozen errenten» batez besteko ehuneko hazkunde ehuneko 4ko hazkunde izan zen lehenengo denboraldian (2001-2003), eta bigarren denboraldian ehuneko 7koa (2003-2006). Ehunekotan, lan-jardueratik datozen errenten (lan-errenten) bilakaera ez zen iritsi kapital higikorren magnitudera, baina termino absolutuetan errentarik garrantzitsuenak izaten jarraitzen dute, aztertutako urte guztietarako pertsonen errenta osoaren zati handiena izaten jarraitzen dutelako, hau da, errenta osoaren ehuneko 63 eta ehuneko 67 artean (2006 eta 2001. urteetan hurrenez hurren). Hirugarrenik, errenta osoaren gainean duen portzentajearen garrantziagatik bigarren errenta-iturria denaren eboluzioa aipatu behar dugu. «Transferentzien» kasua da. Errenta-iturri honen batez besteko hazkunde-tasa ehuneko 6koa izan zen 2001 eta 2003. urtean, eta 2003 eta 2006. urteen artean ehuneko 9 baino gehiago. Errenta-iturri honen batez besteko hazkunde-tasa ehuneko 6koa izan zen 2001 eta 2003. urtean, eta 2003 eta 2006. urteen artean ehuneko 9 baino gehiago. Laugarren errenta-iturririk garrantzitsuena magnitudean «jardueren errenta» da. Errenta-iturri hau 2001-2003 denboraldian ia aldaketarik gabe egon zen eta 2003-2006 denboraldian ehuneko 3 puntu inguru gehitu zen. Azkenik, «kapital higiezinaren» errenta-iturriak izandako bilakaera aipatu behar dugu. Hain zuzen ere, kapital higiezinetik datozen errenten hazkunde 2003-2006 denboraldian bikoiztu baino gehiago egin da 2001-2003 lehenengo denboraldiaren aldean. Batez besteko hazkunde-tasak, hurrenez hurren, ehuneko 10 eta ehuneko 4 dira.


La *tasa de crecimiento real* (gráfico 2) ratifica la importancia del componente «capital mobiliario». El incremento medio registrado para las rentas percibidas de este tipo de capital entre los años 2001 y 2003 es del 2 por ciento, mientras que entre los años 2003 y 2006 esta cifra alcanza el 29 por ciento. Las «rentas procedentes del trabajo» sufrieron un estancamiento entre los años 2001 y 2003 (tasa de crecimiento del 0 por ciento) mientras que entre los años 2003 y 2006 el crecimiento medio alcanzó el 4 por ciento. Por su parte, las «transferencias», experimentan un crecimiento medio del 2 por ciento entre 2001 y 2003 para luego aumentar hasta el 6 por ciento en el periodo 2003-2006. Si bien las «rentas de actividades» no crecieron en términos nominales en el periodo 2001-2003, lo cierto es que en términos reales sufrieron un descenso medio del 3 por ciento, esto es, presentaron una tasa de crecimiento real negativa (-3 por ciento). Para el periodo posterior (2003-2006) el crecimiento medio real registrado es nulo. Finalmente, la fuente de renta «capital inmobiliario» pasa de registrar un crecimiento real medio nulo entre los años 2001 y 2003 a crecer en media un 6 por ciento en el periodo 2003-2006.

*Hazkunde errearen tasak* (2. grafikoa) «kapital higikorra» osagaiaren garrantzia berresten du. Honelako kapital motarako jasotako errentetarako 2001 eta 2003. urteen artean erregistratu den batez besteko hazkundea ehuneko 2koa da; 2003 eta 2006. urteen artean, berriz, gehikuntza ehuneko 29koa izan zen. «Lanetik datozen errentak» ez ziren hazi 2001 eta 2003. urteen artean (hazkunde-tasa ehuneko 0 izan zen), eta 2003 eta 2006. urteen artean batez besteko hazkundea ehuneko 4 izan zen. Bestalde, «transferentziak» ehuneko 2ko batez besteko hazkundea izan zuten 2001 eta 2003. urteen artean, eta gero, 2003-2006 denboraldian, ehuneko 6ra igo ziren. «Jardueren errentak» ez ziren termino nominalan hazi 2001-2003 denboraldian, baina egia da termino errealean batez bestez ehuneko 3ko jaitsiera izan zutela, hau da, hazkunde-tasa erreal negatiboa izan zuten (ehuneko -3). Ondorengo denboraldirako (2003-2006), batez besteko hazkunde erreala hutsala izan zen. Azkenik, «kapital higiezina» errenta-iturria 2001 eta 2003 urteen artean batez besteko hazkunderik ez izatetik batez bestez ehuneko 6 haztera igaro zen 2003-2006 denboraldian.

Evolución de la renta personal real en la C.A. de Euskadi por tipo de renta

2

**Pertsonen errenta errearen eboluzioa Euskal AEn, errenta-motaren arabera**



Iturria: Geuk egina, pertsonen eta familien errentaren estatistikan oinarrituta (Eustat).  
 Fuente: Elaboración propia a partir de la Estadística de renta personal y familiar (Eustat).

## 2.2. Renta familiar nominal y real

La renta personal de la que disfrutaban los habitantes de la C.A. de Euskadi, sin embargo, no es el reflejo perfecto de la situación económica concreta de los individuos. La C.A. de Euskadi, como otras muchas sociedades de su entorno, presenta un modelo económico y social basado en el núcleo familiar. Mientras que la *renta familiar* para un hogar en el que existe un único perceptor de renta es exactamente igual a la renta de ese individuo, la renta familiar para un hogar en el que existen dos perceptores de renta es la suma de las rentas individuales de dichos dos perceptores. Ahora bien, el hecho de que existan más perceptores de renta no necesariamente implica que la renta familiar percibida por el primer hogar en la que sólo hay un perceptor sea inferior a la renta familiar del segundo hogar en el que son dos los perceptores. Podría suceder perfectamente que la renta percibida por cada uno de los dos individuos de la segunda familia fuese inferior a la percibida por el individuo único de la primera. La consecuencia directa de esta situación sería que la renta familiar del hogar con dos individuos perceptores de renta podría ser igual o incluso inferior a la percibida por el hogar con un único perceptor. Pues bien, en este contexto cobra especial relevancia el concepto de renta familiar, que permite ampliar la perspectiva de análisis del problema de distribución de la renta al ámbito de la familia.

La *renta familiar nominal* en la C.A. de Euskadi (ver gráfico 3) creció un 6 por ciento aproximado entre los años 2001 y 2006 de forma tal que para el año 2006 el valor de la misma ascendía a 38.853 euros anuales. Al realizar el análisis para cada uno de los periodos disponibles se observa que esta renta creció en torno al 4 por ciento de media en el periodo 2001-2003 mientras que alcanzó el 6 por ciento de media en el periodo 2003-2006.

La tasa media de *crecimiento real* de la renta familiar (ver gráfico 4), sin embargo, es de tan sólo un 2 por ciento para el periodo 2001-2006. En este caso, tal y como sucede en el caso de la renta personal, desagregar el crecimiento en los dos periodos disponibles permite observar el práctico estancamiento experimentado por la renta familiar en el periodo 2001-2003 (tasa media de crecimiento real del 0,8 por ciento), así como el periodo de crecimiento económico que tienen lugar entre los años 2003 y 2006 (tasa media de crecimiento real del 2,9 por ciento).

La composición de la renta familiar en términos nominales, por su parte, no dista de la composición registrada para la renta personal. El 63 por ciento de la renta total procede de las rentas del trabajo, el 20 por ciento procede de las transferencias percibidas y al 10 por ciento de las rentas del capital mobiliario. La renta procedente de actividades representa en torno al 6 por ciento de la renta total mientras que a la cola se encuentra la renta procedente del capital inmobiliario que supone en torno al 1 por ciento de la renta total.

## 2.2. Familien errenta nominala eta erreala


Euskal AEko biztanleek daukaten errenta pertsonala, ordea, ez da norbanakoen egoera ekonomikoaren isla zehatza. Euskal AEk, inguruko gizarte askok bezala, famili nukleoan oinarritutako eredu ekonomiko eta soziala dauka. Errenta jasotzen duen pertsona bakarra dagoen etxeetan, *famili errenta* pertsona horren errentaren berdina da, baina errenta bat jasotzen duten bi pertsona badaude etxean, famili errenta bi pertsona horietako bakoitzaren errenten batua da. Ordea, errenta jasotzen duten pertsona gehiago egoteak ez du zertan esan nahi errenta-jasotzaile bakarra daukan etxeko famili errenta txikiagoa izan behar denik bi errenta-jasotzaile dituen etxeko errenta baino. Baliteke bigarren familiako bi kideetako bakoitzak jasotzen duen errenta lehenengo familiako pertsonak jasotzen duena baino txikiagoa izatea. Horrek esan nahiko luke bi errenta-jasotzaile dituen etxeko famili errenta jasotzaile bakarrek etxean sartzen den errentaren berdina edo are txikiagoa izan litekeela. Bada, testuinguru honetan garrantzi berezia hartzen du famili errentaren kontzeptuak, errentabanaketaren arazoaren analisiaren ikuspegia famili eremura zabaltzen ahalbideratzen duena.

Euskal AEko *famili errenta nominala* (ikusi 3. grafikoa) ehuneko 6 inguru gehitu zen 2001 eta 2006. urteen artean, gutxi gorabehera. Beraz, 2006. urterako, haren balioa urtean 38.853 eurora jaitsi zen. Eskuragarri dauden denboraldietako bakoitzaren analisia egin ondoren ikusi da errenta hori ehuneko 4 inguru gehitu zela batez beste 2001-2003 denboraldian, eta 2003-2006 denboraldian ehuneko 6ra iritsi zela batez beste.

Famili errentaren *hazkunde erreala*ren batez besteko tasa (ikusi 4. grafikoa), ordea, ehuneko 2koa baino ez da 2001-2006 denboraldirako. Kasu horretan, errenta pertsonalaren kasuan gertatzen denez, eskuragarri dauzkagun bi denboraldietan hazkundera desagregatuz gero ikusiko dugu famili errenta 2001-2003 denboraldian ez dela ia gehitu (hazkunde erreala batez besteko tasa ehuneko 0,8 da), eta 2003. urtea 2006. urteen artean izandako hazkunde ekonomikoko aldia ikusi ahalko dugu (hazkunde erreala batez besteko tasa, ehuneko 2,9).

Famili errentaren osatura, termino nominaletan, bestalde, ez da aldatzen errenta pertsonalerako erregistratutako osateratik. Errenta osoaren ehuneko 63a laneko errentetatik dator, ehuneko 20 jasotako transferentzietatik, eta ehuneko 10 kapital higikorrek errentetatik. Jardueretatik datorren errenta errenta osoaren ehuneko 6 inguru da. Azkenik, kapital higiezinetik datorren errenta dago, errenta osoaren ehuneko 1 dena.





Iturria: Geuk egina, pertsonen eta familien errentaren estatistikan oinarrituta (Eustat).

Fuente: Elaboración propia a partir de la Estadística de renta personal y familiar (Eustat).

El aumento de la tasa de crecimiento de la renta familiar nominal puede desagregarse, tal y como se ha hecho para la renta personal, en función de las distintas fuentes de renta. En primer lugar, se observa un incremento de la tasa de crecimiento de las rentas procedentes del trabajo de un 1 por ciento. Concretamente, estas rentas pasan de presentar una tasa media de crecimiento de en torno al 4 por ciento anual entre los años 2001 y 2003 a presentar una tasa de crecimiento del 5 por ciento entre los años 2003 y 2006. Las rentas procedentes del «capital mobiliario» son, también en este caso, las que experimentan un incremento más sustancial. Si entre los años 2001 y 2003 este tipo de renta crecía a una tasa media del 6 por ciento anual, entre los años 2003 y 2006 esta tasa multiplica más de cinco veces su valor hasta alcanzar el 31 por ciento. La segunda fuente principal de renta de las familias, esto es las «transferencias», crecieron a una tasa del 4 por ciento en el periodo 2001-2003. Pues bien, esta tasa aumenta hasta el 7 por ciento en el periodo 2003-2006 de manera tal que, en este último periodo, las tasas de crecimiento registradas para «transferencias» y «capital inmobiliario» quedan igualadas. Concretamente, el «capital inmobiliario» pasó de crecer un 4 por ciento anual en media durante los años 2001-2003 a crecer un 7 por ciento (misma tasa de crecimiento del componente de renta «transferencias») en el periodo 2003-2006.

En términos reales, sin embargo, los valores difieren para los distintos componentes. El «capital mobiliario» crece entre 2001 y 2003 un 3 por ciento de media, tasa que se eleva hasta el 25 por ciento entre los años 2003 y 2006. En el caso de las «transferencias», la tasa media de crecimiento real en

Familien errenta nominalaren hazkunde-tasa desagregatu ahal da, errenta pertsonalerako egin denez, errenta-iturri ezberdinen arabera. Lehenik eta behin, laneko errenten hazkunde-tasaren ehuneko 1eko gehikuntza atzeman da. Zehazki, errenta hauek 2001 eta 2003. urteen artean urtero ehuneko 4 inguruko batez besteko hazkunde-tasa izan zuten, eta 2003 eta 2006. urteen artean ehuneko 5eko hazkunde-tasa izan zuten. «Kapital higikorretik» datozen errentak, kasu honetan ere, gehikuntzarik handiena izan dutenak dira. 2001 eta 2003. urteen artean errenta mota hau urtean ehuneko 6ko batez besteko tasan gehitzen zen, eta 2003 eta 2006. urteen artean, tasa honek bere balioa bost aldiz baino gehiagotan biderkatu zuen, ehuneko 31raino. Famili errenten bigarren iturri nagusia, hau da, «transferentziak», ehuneko 4ko tasan gehitu ziren 2001-2003 denboraldian. Bada, tasa hau, 2003-2006 denboraldian, ehuneko 7raino gehitu zen. Beraz, azken denboraldi horretan, «transferentzietarako» eta «kapital higiezinarako» erregistratutako hazkunde-tasak berdindu egin ziren. Zehazki, «kapital higiezina» ehuneko 4 gehitu zen urtean batez bestez 2001-2003 urteetan; 2003-2006 urteetan, berriz, ehuneko 7 hazi zen («transferentzien» errenta-osagaiaren hazkunde-tasa berbera).

Termino errealean, ordea, balioak ezberdinak dira osagai batzuentzat eta besteentzat. «Kapital higikorrek» 2001 eta 2003. urteen artean batez bestez ehuneko 3 gehitu zen. Tasa hori ehuneko 25eraino hazi zen 2003 eta 2006. urteen artean. «Transferentzien» kasuan, hazkunde errealearen batez beste-


el periodo 2001-2003 toma el valor 2 por ciento y en el periodo 2003-2006 alcanza el 3 por ciento. Finalmente, el «capital inmobiliario» registró una etapa de estancamiento entre 2001 y 2003 para después crecer a una tasa media del 4 por ciento entre los años 2003 y 2006.

ko tasak 2001-2003 denboraldian ehuneko 2ko balioa esku-ratu zuen, eta 2003-2006 denboraldian, ehuneko 3koa. Azke-nik, «kapital higiezina» ez zen hazi 2001 eta 2003. urteen artean; 2003 eta 2006. urteen artean, berriz, batez bestez ehuneko 4ko tasan hazi zen.

*Evolución de la renta familiar real en la C.A. de Euskadi por tipo de renta.*

4

**Familien errenta errealearen eboluzioa Euskal AEn, errenta-motaren arabera**



**Iturria: Geuk egina, pertsonen eta familien errentaren estatistikan oinarrituta (Eustat).**  
Fuente: Elaboración propia a partir de la Estadística de renta personal y familiar (Eustat).

### 2.3. La renta disponible

Para concluir el análisis sobre la renta personal y familiar en la C.A. de Euskadi, cabe reseñar un componente de renta especialmente relevante desde la perspectiva económica: la renta disponible. La renta disponible (ver gráficos 1 a 4 para los casos de la renta personal y renta familiar) es un reflejo directo del montante que tanto individuos como familias, según la versión de renta analizada, pueden utilizar para consumir o ahorrar. Pues bien, de los 17.362 euros de renta total nominal del individuo medio de la C.A. de Euskadi, en el año 2006 disponía para consumo y ahorro de 14.598 euros, esto es, el 84 por ciento de su renta total era renta disponible (ver gráfico 5). Del mismo modo, de los 38.853 euros de renta total nominal media registrada para las familias en el año 2006, el 84 por ciento resultaba ser renta disponible (32.655 euros).

Ahora bien, tal y como revela el gráfico 5, en los años 2001 y 2003 la renta disponible representaba, tanto en términos personales como familiares, el 85 por ciento de la renta total. En consecuencia, con independencia de la unidad de análisis

### 2.3. Errenta erabilgarria

Euskal AEko pertsonen eta familien errentari buruzko analisisa amaitzeko, ikuspegi ekonomikotik garrantzi handia duen errenta-osagai bat aipatu behar genuke: errenta erabilgarria. Errenta erabilgarria (ikusi 1 a 4 grafikoak pertsonen errentarako eta familien errentarako) norbanakoek zein familiek (aztertzen den errenta-bertsioaren arabera) kontsumitzeko edo aurrezteko erabil dezaketzen diru-kopuruaren zuzeneko isla da. Bada, Euskal AEko batez besteko norbanakoaren 17.362 euroko errenta nominal osotik, 2006. urtean, 14.598 euro zeuzkan kontsumitzeko eta aurrezteko. Hau da, errenta osoaren ehuneko 84 errenta erabilgarria zen (ikusi 5. grafikoa). Era berean, familientzat 2006. urtean erregistratu zen 38.853 euroko batez besteko errenta nominal osotik ehuneko 84 zen errenta erabilgarria (32.655 euro).

Baina, 5. grafikoan ikus dezakegunez, 2001 eta 2003. urteetan, errenta erabilgarria, bai pertsonena bai familiaena, errenta osoaren ehuneko 85 zen. Ondorioz, aztertzen dugun anali-si-unitatea gorabehera (hau da, pertsonak edo familiak azter-


utilizada (personas o familias), puede concluirse que en la C.A. de Euskadi la renta disponible representa un porcentaje menor de la renta total en el año 2006. Concretamente, supone 1 punto porcentual menos de lo que venía suponiendo en los años 2001 y 2003.

tzea gorabehera), esan dezakegu Euskal AEn errenta esku-ragarria 2006. urteko errenta osoa baino portzentaje txikiagoa dela. Zehazki, 2001 eta 2003. urteetan zenaren ehuneko 1 gutxiago da.

*Evolución de la composición de la renta total: renta disponible y otras rentas en la C.A. de Euskadi (%)*

5

**Errenta osoaren osaeraren bilakaera: errenta erabilgarria eta bestelako errentak Euskal AEn (%)**



**Iturria: Geuk egina, pertsonen eta familien errentaren estatistikan oinarrituta (Eustat).**

Fuente: Elaboración propia a partir de la Estadística de renta personal y familiar (Eustat).

En lo que respecta al crecimiento experimentado por la renta disponible, cabe diferenciar, como en los casos anteriormente analizados, entre crecimiento nominal y crecimiento real. Entre los años 2001 y 2003 la tasa media de *crecimiento nominal* de la renta personal disponible fue del 4 por ciento, mientras que entre 2003 y 2006 la tasa media se duplica alcanzando el 8 por ciento. En el caso de la renta familiar, el crecimiento medio fue del 4 por ciento en el periodo 2001-2003 para alcanzar el 6 por ciento en el posterior periodo 2003-2006.

En términos reales, la renta personal crece a una tasa media del 0,4 por ciento entre los años 2001 y 2003 y alcanza el 4,8 por ciento en el periodo 2003-2006. La renta familiar, sin embargo, registra una tasa media de crecimiento del 0,9 por ciento entre los años 2001 y 2003 y más que se duplica (2,3 por ciento) para el periodo 2003-2006.

Del análisis sobre la composición de la renta personal y familiar en la C.A. de Euskadi cabe señalar las siguientes conclusiones. En primer lugar, la renta en la C.A. de Euskadi ha crecido a lo largo del periodo 2001-2006. El crecimiento de la renta real muestra dos periodos claramente diferenciados. El primero, caracterizado por un estancamiento, abarca el periodo comprendido entre los años 2001 y 2003. En el segundo (2003-2006), por el contrario, la tasa de crecimiento real de la renta se revela como significativa.

Errenta erabilgarriak izan duen hazkundeari dagokionez, aurreko kasuetan bezala, hazkunde nominala eta hazkunde erreala bereiztu behar ditugu. 2001 eta 2003. urteen artean, pertsonen errenta erabilgarriaren *hazkunde nominalaren* batez besteko tasa ehuneko 4koa izan zen. 2003 eta 2006. urteen artean, ordea, batez besteko tasa bikoiztu egin zen, ehuneko 8raino. Familien errentaren kasuan, batez besteko gehikuntza ehuneko 4koa izan zen 2001-2003 denboraldian, eta 2003-2006 denboraldian ehuneko 6koa izan zen.

Termino errealean, pertsonen errentak ehuneko 0,4ko batez besteko gehikuntza tasa izan zuen 2001 eta 2003. urteen artean, eta 2003 eta 2006. urteen artean ehuneko 4,8ra iritsi zen. Familien errenta, ordea, ehuneko 0,9ko batez besteko gehikuntza tasara iritsi zen 2001 eta 2003. urteen artean, eta 2003-2006 denboraldirako bikoiztu baino gehiago egin zen (ehuneko 2,3).

Euskal AEn pertsonen eta familien errentaren osaera aztertzen badugu, ondorio hauek aterako ditugu. Lehenik eta behin, Euskal AEn errenta gehitu egin da 2001-2006 denboraldian. Errenta errealearen hazkundeak bi denboraldi oso ezberdin erakusten ditu. Lehenengoan, geldialdia da nagusi, 2001 eta 2003. urteen artekoa. Bigarrenean (2003-2006), ordea, errentaren hazkunde-tasa erreala esanguratsua da.

El crecimiento está asociado a las tasas de crecimiento de los distintos componentes de la renta total que, a excepción de la renta procedente de «actividades», muestran una tendencia positiva. Si bien en términos absolutos las partidas de renta que se revelan como principales son las rentas procedentes del «trabajo» seguidas de las «transferencias», el análisis detallado de los patrones de crecimiento de cada partida pone de manifiesto que son las rentas procedentes del «capital mobiliario» las que han registrado el mayor crecimiento tanto en términos nominales como en términos reales.

Finalmente, el patrón de crecimiento de la renta disponible es muy similar al caso de la renta real. Sin embargo, la parte de la renta total que tanto individuos como familias disponen en la C.A. de Euskadi se ha reducido para el último año registrado (2006) un punto porcentual con respecto a los años anteriores (2001 y 2003).

Hazkundera errenta osoaren osagaien hazkunde-tasei lotuta dago. Osagai horiek guztiek («jardueretatik» datorren errenta izan ezik) joera positiboa daukate. Termino absolutuetan, errenta-partida nagusiak «lanetik» datozen errentak dira, eta gero «transferentzienak». Partida bakoitzeko hazkunde-patroien analisi xeheak erakusten digu «kapital higikorretik» datozen errentak direla gehien hazi direnak, bai termino nominaletan, bai termino errealetan.

Azkenik, errenta erabilgarriaren hazkunde-patroia oso antzekoa da errenta errealearen kasuan. Aitzitik, Euskal AEn norbanakoek nahiz familiek daukaten errenta osoaren zatia ehuneko puntu bat murriztu da erregistratu den azken urtean (2006), aurreko urteekin (2001 eta 2003) alderatuta.

### 3. DISTRIBUCIÓN TERRITORIAL DE LA RENTA

#### 3.1. Distribución territorial de la renta por territorios históricos

##### 3.1.1. Distribución territorial de la renta personal por territorios históricos

El gráfico 6 representa la evolución de la *renta personal media nominal* en la C.A. de Euskadi por territorios históricos. Tal y como se exponía en el apartado anterior, en el año 2006 la renta personal media nominal para el conjunto de la C.A. de Euskadi asciende a 17.362 euros, lo que significa que este tipo de renta ha aumentado (en términos nominales) un 27 por ciento con respecto al año 2003 y un 37 por ciento con respecto al año 2001.

Pues bien, para Álava la renta personal media nominal asciende a 17.190 euros, lo que supone un incremento del 22 por ciento con respecto al año 2003 y del 30 por ciento con respecto al año 2001. En Bizkaia, la renta personal media nominal registrada para el año 2006 es de 17.332 euros. Este valor, prácticamente idéntico a la media de la Comunidad, supone un incremento de renta del 30 por ciento con respecto al año 2003 y del 41 por ciento con respecto al año 2001. Finalmente, en Gipuzkoa, la renta personal media nominal del año 2006 fue de 17.488 euros, lo que supone un aumento de la misma del 26 por ciento con respecto al año 2003 y del 34 por ciento con respecto al año 2001.

### 3. ERRENTAREN LURRALDE-BANAKETA

#### 3.1. Errentaren lurralde-banaketa, lurraldez lurralde

##### 3.1.1. Pertsonen errentaren lurralde-banaketa, lurraldez lurralde


6. grafikoak Euskal Aeko *personen batez besteko errenta nominalaren* bilakaera erakusten du, lurralde historikoen arabera. Aurreko atalean azaldu dugunez, 2006. urtean pertsonen batez besteko errenta nominala Euskal AEn 17.362 eurokoa zen. Horrek esan nahi du errenta mota hau ehuneko 27 gehitu dela termino nominaletan 2003. urtearen aldean, eta ehuneko 37, 2001. urtearen aldean.

Bada, Araban, pertsonen batez besteko errenta nominala 17.190 eurokoa da. Horrek esan nahi du 2003. urteaz geroztik ehuneko 22 gehitu dela, eta 2001. urteaz geroztik, ehuneko 30. Bizkaia lurralde historikoan, 2006. urterako erregistratu den pertsonen batez besteko errenta nominala 17.332 eurokoa da. Balio hori erkidegoaren batezbestekoaren ia berdina da, eta 2003. urteko errentaren aldean ehuneko 30eko gehikuntza izan dela esan nahi du, eta 2001. urteko errentaren aldean, ehuneko 41eko gehikuntza. Azkenik, Gipuzkoan, pertsonen batez besteko errenta nominala 17.488 eurokoa izan zen 2006. urtean; beraz, errenta hori ehuneko 26 gehitu zen 2003. urtetik, eta ehuneko 34 2001. urtetik.

Distribución territorial de la renta personal por territorios históricos

6

Pertsonen errentaren lurralde-banaketa, lurraldez lurralde



Iturria: Geuk egina, pertsonen eta familien errentaren estatistikan oinarrituta (Eustat).  
Fuente: Elaboración propia a partir de la Estadística de renta personal y familiar (Eustat).

La tasa de crecimiento de la renta real, sin embargo, dista del crecimiento nominal que se observa. A lo largo del periodo 2001-2006 la *renta personal real* en la C.A. de Euskadi creció un 16,8 por ciento. Sin embargo, tal y como se ha señalado en el epígrafe anterior, este crecimiento no fue sostenido. Mientras que entre los años 2001 y 2003 se produce prácticamente un estancamiento, con un crecimiento medio del 0,3 por ciento, entre los años 2003 y 2006 esta renta real crece a una tasa media del 5,3 por ciento.

Pues bien, en el caso de Álava, el crecimiento real del periodo completo es del 10,5 por ciento. En este caso, entre los años 2001 y 2003 se produce una ligera recesión en la renta, cuya tasa de crecimiento medio anual es igual a -0,2 por ciento, mientras que entre los años 2003 y 2006 registra un crecimiento medio anual del 3,6 por ciento. La renta personal en Bizkaia crece un 20 por ciento en términos reales a lo largo de todo el periodo. En este caso, entre los años 2001 y 2003 la tasa media de crecimiento es del 0,8 por ciento, mientras que entre los años 2003 y 2006 crece a una tasa media del 6 por ciento. Finalmente, Gipuzkoa registra una tasa de crecimiento de la renta real del 14,5 por ciento en el periodo completo 2001-2006, siendo el crecimiento medio entre los años 2001 y 2003 negativo e igual al -0,1 por ciento y entre los años 2003 y 2006 positivo e igual al 4,9 por ciento.

A la vista de los datos, se pueden realizar diversas conclusiones. En primer lugar, tal y como se observa para el año 2006, la renta personal media es muy similar en todos los territorios históricos. El que mayor renta media presenta es Gipuzkoa, si bien esta cifra sólo supone un uno por ciento más que la media para el conjunto de la Comunidad Autónoma. En segundo lugar se encuentra Bizkaia, cuya renta personal media es prácticamente igual a la media registrada para todo el territorio. Finalmente, Álava es el territorio histórico con una menor renta personal media, si bien esta cifra sólo se desvía el uno por ciento en negativo con respecto a la media del conjunto de la C.A. de Euskadi.

En segundo lugar, tal y como puede observarse para los tres territorios históricos representados de forma separada en el gráfico 6, la renta personal media, no sólo ha aumentado para el conjunto de la C.A. de Euskadi sino que lo ha hecho de manera individual para todos y cada uno de los territorios de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa. De esta descripción se puede concluir que la evolución de la renta en la C.A. de Euskadi, así como la evolución intraterritorial de la renta de cada uno de los territorios históricos que la conforman, ha seguido una tendencia creciente en el periodo comprendido entre los años 2001 y 2006. Además, el crecimiento se observa tanto en términos nominales como en términos reales, si bien, en este último caso, se observa una etapa de estancamiento entre los años 2001 y 2003 y una etapa de crecimiento entre los años 2003 y 2006.

En tercer y último lugar, cabe reseñar la diferente magnitud del aumento porcentual de la renta registrado para cada uno de los diferentes territorios históricos o magnitud de la evolución intraterritorial de la renta personal del año 2006 con respecto al valor inicial registrado en el año 2001. Concretamente, esta magnitud es máxima en el caso de Bizkaia (41 por ciento para la renta nominal y 20 por ciento para la renta real). El segundo lugar en la lista lo ocupa Gipuzkoa con un aumento del 34 por ciento en renta nominal y 14,5 por ciento en renta real. Finalmente, a la cola de los tres territorios se sitúa Álava, que con un aumento de la renta personal nominal del 30 por ciento y real del 10,5 por ciento registra el menor de los crecimientos de los tres territorios históricos.

Errenta errearen hazkunde-tasa, ordea, hazkunde nominalik urrun dago. 2001-2006 denboraldian, *pertsonen errenta erreala* ehuneko 16,8 hazi zen Euskal AEn. Aitzitik, aurreko epigrafean esan dugunez, hazkunde hori ez zen jarraitua izan. 2001 eta 2003. urteen artean errenta ez zen ia aldatu, ehuneko 0,3ko batez besteko hazkundearekin. 2003 eta 2006. urteen artean, berriz, errenta erreal hori ehuneko 5,3ko tasan hazi zen.

Bada, Araba lurralde historikoan, denboraldi osoaren hazkunde erreala ehuneko 10,5ekoa da. Kasu honetan, 2001 eta 2003. urteen artean, errentaren atzeraldi txiki bat gertatu zen. Haren urteko batez besteko hazkunde-tasa ehuneko -0,2 da. 2003 eta 2006. urteen artean, berriz, urteko batez besteko hazkunde-tasa ehuneko 3,6koa da. Bizkaian, pertsonen errenta ehuneko 20 gehitu zen termino errealetan, denboraldi horretan. Kasu honetan, 2001 eta 2003. urteen artean, batez besteko hazkunde-tasa ehuneko 0,8koa da. 2003 eta 2006. urteen artean, berriz, ehuneko 6ko batez besteko tasara gehitu zen. Azkenik, Gipuzkoa lurralde historikoan errenta errearen hazkunde-tasak ehuneko 14,5ekoa izan zen 2001-2006 denboraldian. 2001 eta 2003. urteen arteko batez besteko hazkunde negatiboa izan zen (ehuneko -0,1), baina 2003 eta 2006. urteen artean, positiboa (ehuneko 4,9).

Datu horiek ikusita, zenbait ondorio atera ditzakegu. Lehenik eta behin, 2006. urterako ikusten denez, pertsonen batez besteko errenta oso antzekoa da lurralde historiko guztietan. Batez besteko errentarik handiena duen lurralde historikoa Gipuzkoa da. Halere, autonomi erkidego osoaren batez bestekoa baino ehuneko bat bakarrik handiagoa da bertako errenta. Bigarrenik Bizkaia dago; hemen, pertsonen batez besteko errenta lurralde osorako erregistratutako batez besteko errentaren ia berdina da. Azkenik, Araba pertsonen batez besteko errentarik txikiena daukan lurralde historikoa da. hala eta guztiz ere, kopuru hori Euskal AEn batez bestekoa baino puntu negatibo bat txikiagoa da bakarrik.

Bigarrenik, hiru lurralde historikoetan banan-banan ikus daitezkeen (6. grafikoa), pertsonen batez besteko errenta Euskal AE osoarentzat hazteaz gain, lurralde bakoitzean hazi da (Arabian, Bizkaian eta Gipuzkoan). Deskribapen horretatik ondorioztatu ahal dugu errentaren bilakaerak Euskal AEn eta hura osatzen duten lurralde historikoetako bakoitzaren lurralde barruko bilakaerak goranzko joera izan duela 2001 eta 2006. urteen arteko denboraldian. Gainera, hazkunde termino nominaletan nahiz termino errealetan atzematen da. Halere, azken kasu horretan, termino errealetan alegia, 2001 eta 2003. urteetan errenta ez da ia igo, eta 2003 eta 2006. urteetan hazkunde fasea izan da.

Hirugarrenik eta azkenik, esan behar dugu errentaren gehikuntzaren neurria ezberdina dela, ehunekotan, lurralde historikoetako bakoitzean. Hau da, pertsonen errentaren lurralde barruko eboluzioaren magnitudea ezberdina izan da lurralde bakoitzean 2001. urtean erregistratu zen balioaren aldean. Zehazki, magnitude hori Bizkaia lurralde historikoan izan da handiena (errenta nominalen ehuneko 41ekoa eta errenta errealean ehuneko 20koa izan da). Bigarrenik, Gipuzkoa lurralde historikoa daukagu: errenta nominala ehuneko 34 gehitu da eta errenta erreala ehuneko 14,5 gehitu da. Azkenik, azken lurraldea Araba dugu: pertsonen errenta nominala ehuneko 30 hazi da eta erreala ehuneko 10,5; beraz, hiru lurralde historikoetan hazkunderik txikiena hemen gertatu da.

### 3.1.2. *Distribución territorial de la renta familiar por territorios históricos*

El gráfico 7 representa la evolución de la renta familiar *nominal* media en la C.A. de Euskadi por territorios históricos. Como se ha descrito anteriormente, en el año 2006 la renta familiar media *nominal* para el conjunto de la C.A. de Euskadi era de 38.853 euros; esta cifra supone un aumento de la renta familiar media del 19 por ciento con respecto al valor que tomaba en el año 2003 y del 29 por ciento con respecto al valor registrado para el año 2001. Para el caso concreto de Álava, la renta familiar media asciende a 38.610 euros, lo que supone un incremento del 14 por ciento con respecto al año 2003 y del 23 por ciento con respecto al año 2001. En Bizkaia, la renta familiar media en el año 2006 es de 39.008 euros, lo que supone un incremento de renta del 21 por ciento con respecto al año 2003 y del 32 por ciento con respecto al año 2001. Finalmente, en Gipuzkoa, la renta familiar media del año 2006 asciende a 38.704 euros, por lo que esta renta ha aumentado un 18 por ciento con respecto al año 2003 y un 28 por ciento con respecto al año 2001.

La tasa de crecimiento de la renta familiar *real* dista del crecimiento en términos nominales. A lo largo del periodo 2001-2006 la renta familiar real en la C.A. de Euskadi creció un 10,4 por ciento. Sin embargo, tal y como se apuntaba en el epígrafe anterior, este crecimiento no es sostenido. Mientras que entre los años 2001 y 2003 se produce prácticamente un estancamiento con un crecimiento medio del 0,8 por ciento, entre los años 2003 y 2006 esta tasa crece hasta el 2,9 por ciento. En el caso de Álava, la renta familiar real crece un 5,1 por ciento entre los años 2001 y 2006. En este caso, el crecimiento medio entre los años 2001 y 2003 es igual a 0,7 por ciento mientras que entre los años 2003 y 2006 registra un crecimiento medio del 1,2 por ciento. En el caso de Bizkaia, la renta familiar crece un 12,5 por ciento en términos reales en el periodo. En este caso, entre los años 2001 y 2003 la tasa media de crecimiento es del 1 por ciento mientras que entre los años 2003 y 2006 crece a una tasa media del 3,5 por ciento. Finalmente, Gipuzkoa registra una tasa de crecimiento real del 9,2 por ciento en el periodo completo 2001-2006, siendo el crecimiento medio entre los años 2001 y 2003 del 0,6 por ciento y entre los años 2003 y 2006 del 2,6 por ciento.

Como puede apreciarse, los datos sobre renta familiar dejan patentes diversas características en lo que se refiere a la distribución territorial de la renta. Por una parte, todos los territorios históricos gozan de un nivel de renta muy cercano a la media de la C.A. de Euskadi. Concretamente, el territorio histórico que goza de una mayor renta familiar es Bizkaia, si bien no llega a alcanzar el 0,5 por ciento de superioridad con respecto a la media. En segundo lugar se encuentra Gipuzkoa. Para este territorio histórico la renta familiar del año 2006 apenas se sitúa 0,5 por ciento por debajo de la media para el conjunto de la Comunidad Autónoma. Finalmente, el territorio histórico que menor renta familiar presenta es Álava, cuya renta familiar se sitúa en torno al 0,6 por ciento por debajo de la media.

Por otra parte, la evolución de la renta familiar a lo largo del periodo analizado (2001-2006) muestra una tendencia creciente, tanto para el caso de la C.A. de Euskadi en general como para cada uno de los tres territorios históricos que la conforman, tal y como puede apreciarse en el tamaño creciente de las columnas representadas en el gráfico 7 para cada uno de los casos particulares señalados. Además, el

### 3.1.2. *Familien errentaren lurralde-banaketa, lurraldez lurralde*

7. grafikoak Euskal AEko *familien batez besteko errenta nominalaren* bilakaera erakusten du, lurralde historikoen arabera. Lehen deskribatu denez, 2006. urtean familien batez besteko errenta *nominala* Euskal AE osoarentzat 38.853 eurokoa zen. Kopuru horrek esan nahi du familien batez besteko errenta ehuneko 19 gehitu dela 2003. urteko balioaren aldean, eta ehuneko 29 gehitu dela 2001. urterako erregistratu zen balioaren aldean. Arabaren kasuan, familien batez besteko errenta 38.610 eurokoa da; beraz, ehuneko 14ko gehikuntza izan da 2003. urtearen aldean, eta ehuneko 23koa 2001. urtearen aldean. Bizkaian, familien batez besteko errenta 2006. urtean 39.008 eurokoa da. Horrek esan nahi du errenta ehuneko 21 gehitu dela 2003. urtearen aldean, eta ehuneko 32 2001. urtearen aldean. Azkenik, Gipuzkoa lurralde historikoan, familien batez besteko errenta 2006. urtean 38.704 eurokoa zen. Horrenbestez, errenta hori ehuneko 18 gehitu da 2003. urtearen aldean eta ehuneko 28 2001. urtearen aldean.

Familien errenta *errealaren* hazkunde-tasa errenta nominalaren hazkundetik bereizten da. 2001-2006 denboraldian, familien errenta erreala ehuneko 10,4 hazi zen Euskal AEn. Aitzitik, aurreko epigrafean esan dugunez, hazkunde hori ez zen jarraitua izan. 2001 eta 2003. urteen artean errenta ez zen ia aldatu, ehuneko 0,8ko batez besteko hazkundearekin. 2003 eta 2006. urteen artean, berriz, errenta erreal hori ehuneko 2,9ko tasan hazi zen. Araba lurralde historikoaren kasuan, familien errenta erreala ehuneko 5,1 gehitu zen 2001 eta 2006. urteen artean. Kasu honetan, 2001 eta 2003. urteen arteko batez besteko hazkundea ehuneko 0,7koa zen. 2003 eta 2006. urteen artean, berriz, batez besteko hazkundea ehuneko 1,2koa zen. Bizkaia lurralde historikoaren kasuan, familien errenta ehuneko 12,5 gehitu zen termino errealetan denboraldi horretan. Kasu honetan, 2001 eta 2003. urteen artean, batez besteko hazkunde-tasa ehuneko 1koa da. 2003 eta 2006. urteen artean, berriz, ehuneko 3,5eko batez besteko tasara gehitu zen. Azkenik, Gipuzkoan hazkunde errealearen tasa ehuneko 9,2 izan zen 2001-2006 denboraldian, eta 2001 eta 2003. urteen artean batez besteko hazkundea ehuneko 0,6 izan zen, eta 2003 eta 2006. urteen artean, ehuneko 2,6.

Ikus daitekeenez, familien errentari buruzko datuek zenbait ezaugarri erakusten dituzte errentaren lurralde banaketari dagokionez. Batetik, lurralde historiko guztietan errentaren maila Euskal AEn batezbestekotik oso hurbil dago. Zehazki, familien errenta handiena duen lurralde historikoa Bizkaia da. Halere, batezbestekoa 0,5 puntu baino gutxiagotan gaintitzen du. Bigarren lurralde historikoa Gipuzkoa da. Lurralde historiko honetan, familien errenta 2006. urtean autonomi erkidego osoaren batezbestekoa baino 0,5 gutxiago da bakarrik. Azkenik, familien errenta txikiena den lurralde historikoa Araba da; hemengo familien errenta batezbestekoa baino 0,6 puntu txikiago da.

Batetik, aztertu dugun denboraldian (2001-2006) familien errentaren bilakaerak goranzko joera erakusten du Euskal AEn kasuan oro har eta erkidegoa osatzen duten hiru lurralde historikoetako bakoitzerako. Hala ikus dezakegu 7. grafikoan (kasu bakoitzerako dauden zutabeek goranzko joera erakusten dute). Gainera, hazkundea termino nominaletan nahiz termino errealetan atzematen da. Halere, azken kasu

crecimiento se observa tanto en términos nominales como en términos reales, si bien, en este último caso, se observa una etapa de práctico estancamiento entre los años 2001 y 2003 y una etapa de crecimiento entre los años 2003 y 2006.

horretan, termino errealetan alegia, 2001 eta 2003. urteetan errenta ez da ia igo, eta 2003 eta 2006. urteetan hazkunde fasea izan da.

Distribución territorial de la renta familiar por territorios históricos

7

Familien errentaren lurralde-banaketa, lurraldez lurralde



Iturria: Geuk egina, pertsonen eta familien errentaren estatistikan oinarrituta (Eustat).  
Fuente: Elaboración propia a partir de la Estadística de renta personal y familiar (Eustat).

Finalmente, y también relacionado con la evolución interterritorial de la renta observada para los distintos territorios que conforman la C.A. de Euskadi, cabe destacar el ranking en términos de la tasa de crecimiento de la misma. El territorio histórico de Bizkaia ocupa el primer puesto con un crecimiento de la renta nominal familiar del 32 por ciento y de la renta real del 12,5 por ciento (periodo 2006 respecto a 2001). El segundo puesto lo ocupa Gipuzkoa, que registra un crecimiento del 28 por ciento en renta nominal y del 9,2 por ciento en renta real para ese mismo periodo. Finalmente, cerrando la lista se encuentra Álava, con una tasa de crecimiento del 23 por ciento nominal y del 5,1 por ciento real.

A la vista de los datos pueden extraerse las siguientes conclusiones generales sobre la renta y su distribución interterritorial en la C.A. de Euskadi. En primer lugar, la renta en Euskadi está distribuida de una forma bastante uniforme, dado que las rentas registradas para cada uno de los tres territorios históricos no distan mucho de la media para el conjunto de la Comunidad Autónoma. Las pequeñas diferencias existentes dejan al territorio histórico de Gipuzkoa como el más rico en términos de renta personal y a Bizkaia como el correspondiente en términos de renta familiar, siendo el territorio histórico de Álava el que menor renta percibe en ambos casos.

Azkenik, Euskal AE osatzen duten lurraldeen artean atzeman dugun errentaren bilakaerari buruz, errentaren hazkunde-tasan dagoen rankinga nabarmendu behar dugu. Bizkaia lurralde historikoa da lehenengo postuan dagoena. Hemen, familien errenta nominala ehuneko 32 gehitu da eta errenta erreala ehuneko 12,5 (2001. urtetik 2006. urtera). Bigarrenik Gipuzkoa dago; hemen errenta nominala ehuneko 28 gehitu da eta errenta erreala ehuneko 9,2, denboraldi bererako. Azkenik, zerrendaren amaieran, Araba lurralde historikoa dago. Hazkunde-tasa ehuneko 23koa da errenta nominalean, eta 5,1ekoa errenta errealean.

Datuak ikusita, ondorio orokor hauek atera ahal dira Euskal AEko errentari buruz eta lurralde arteko banaketari buruz. Lehenik eta behin, errenta Euskadin nahiko modu uniforme banatuta dago, hiru lurralde historiko horietako bakoitzerako erregistratutako errentak ez direlako oso ezberdinak autonomi erkidego osoaren batezbestekotik. Dauden ezberdintasun txikien arabera, Gipuzkoa lurralde historikoa da aberatsena errenta pertsonalaren terminoetan, eta Bizkaia aberatsena famili errentan. Araba da, bi kasuetan, errenta txikiena jasotzen duena.



En segundo lugar, como ya se concluía en el anterior apartado, la renta para el conjunto de la Comunidad Autónoma ha aumentado a lo largo del periodo 2001-2006 analizado. Lo que es más, esta tendencia creciente se observa no sólo para el conjunto de la C.A. de Euskadi sino también para cada uno de los territorios históricos que la componen.

Finalmente, la tasa de crecimiento de la renta del año 2006 con respecto al año 2001 revela al territorio histórico de Bizkaia como aquél que mayor crecimiento ha experimentado tanto en términos de renta personal como en términos de renta familiar.

### 3.2. Distribución territorial de la renta por municipios

#### 3.2.1. Distribución territorial de la renta personal por municipios

La tabla 1 describe, por orden, los diez municipios que más renta personal media presentan en el año 2006, así como los diez municipios que menor renta personal media muestran. Atendiendo a esta tabla, las zonas que se presentan como las de mayor renta son Laukiz (29.726), Getxo (25.880) y Sukarrieta (25.326), mientras que los municipios con una menor renta son Errezil (11.202), Baños de Ebro (10.188) y Kripan (9.969). De estos datos se deriva que existe una diferencia en renta de 19.757 euros entre el municipio de más renta y el de menos renta. Así, mientras los residentes en Laukiz gozan de una renta personal que supera la media de la C.A. de Euskadi en un 71 por ciento, los residentes en Kripan viven con un nivel de renta un 43 por ciento inferior a dicha media.

Bigarrenik, aurreko atalean azaldu dugunez, autonomi erki-dego osoaren errenta aztertutako denboraldian (2001-2006) hazi egin da. Are gehiago, goranzko joera hori Euskal AEn ez ezik erkidegoa osatzen duten lurralde historikoetako bakoitzean atzematen da.

Azkenik, 2006. urteko errentaren hazkunde-tasak, 2001. urtearen aldean, erakusten du Bizkaia lurralde historikoa dela gehikuntza handiena izan duena pertsonen errentan eta familien errentan.

### 3.2. Errentaren lurralde-banaketa, udalerriz udalerriz

#### 3.2.1. Pertsonen errentaren lurralde-banaketa, udalerriz udalerriz

1. taulan 2006. urtean pertsonen batez besteko errenta handiena zuten hamar udalerriak agertzen dira, baita pertsonen batez besteko errentarik txikiena zuten hamar udalerriak ere. Taula honen arabera, errenta gehien duten udalerriak hauek dira: Laukiz (29.726), Getxo (25.880) eta Sukarrieta (25.326). Errenta txikiena dutenak, berriz: Errezil (11.202), Mañueta (10.188) eta Kripan (9.969). Datu horietatik ondorioztatzen da 19.757 euroko aldea dagoela errenta handiena eta errenta txikiena dauzkaten udalerrien artean. Laukizko biztanleen errenta pertsonalak Euskal Aeko batezbestekoa ehuneko 71n gainditzen du.

Distribución territorial de la renta personal por municipios. 2006

1

Pertsonen errentaren lurralde-banaketa, udalerriz udalerriz. 2006

Errenta handiena / Mayor renta		Errenta txikiena / Menor renta	
Udalerría / Municipio	Errenta Renta	Udalerría / Municipio	Errenta Renta
Laukiz	29.726	Villabuena de Álava / Eskuernaga	12.219
Getxo	25.880	Harana / Valle de Arana	11.881
Sukarrieta	25.326	Karrantza Harana / Valle de Carranza	11.839
Loiu	24.962	Elvillar / Bilar	11.720
Maruri-Jatabe	24.257	Yécora	11.672
Zigoitia	23.538	Lanestosa	11.505
Gamiz-Fika	22.565	Lanciego / Lantziego	11.496
Lezama	22.284	Errezil	11.202
Gorliz	21.815	Baños de Ebro / Mañueta	10.188
Elburgo / Burgelu	21.672	Kripan	9.969

Iturria: Geuk egina, pertsonen eta familien errentaren estatistikan oinarrituta (Eustat).  
Fuente: Elaboración propia a partir de la Estadística de renta personal y familiar (Eustat).

### 3.2.2. Distribución territorial de la renta familiar por municipios

La tabla 2 describe, por orden, los diez municipios que más renta familiar media presentan en el año 2006, así como los diez municipios que menor renta familiar media muestran. Como puede observarse, los tres municipios de mayor renta son Laukiz, (80.338 euros), Getxo (63.134 euros) y Loiu (61.595 euros), mientras que a la cola de la distribución aparecen otros como Lanciego/Lantziego con 25.866 euros, Campezo/Kanpezu con 25.608 euros y Kripan con 24.440 euros. La diferencia total en renta familiar que surge de comparar el municipio de mayor renta con el municipio de menor renta alcanza los 55.898 euros. Esto significa que los residentes de Laukiz gozan de una renta familiar que supera a la media de la C.A. de Euskadi en un 107 por ciento, mientras que los residentes en Kripan disfrutan de un nivel de renta familiar un 37 por ciento inferior a la media de la C.A. de Euskadi.

### 3.2.2. Familien errentaren lurralde-banaketa, udalerriz udalerriz

2. taulan 2006. urtean familien batez besteko errenta handiena zuten hamar udalerriak agertzen dira, baita familien batez besteko errentarik txikiena zuten hamar udalerriak ere. Ikus dezakegunez, errentarik handiena duten hiru udalerriak Laukiz, (80.338 euro), Getxo (63.134 euro) eta Loiu (61.595 euro) dira. Errenta txikiena dutenak, berriz, Lanciego/Lantziego (25.866 euro), Campezo/Kanpezu (25.608 euro) eta Kripan (24.440 euro) dira. Familien errenta handiena duen udalerria eta familien errenta txikiena duen udalerria erkatzen baditugu, 55.898 euroko aldea dago. Horrek esan nahi du Laukizen familien errentak Euskal AEko batez besteko errenta ehuneko 107an gainditzen duela, eta Kripanen familien errenta Euskal AEko batez besteko errenta baino ehuneko 37 txikiago dela.

Distribución territorial de la renta familiar por municipios. 2006

2

Familien errentaren lurralde-banaketa, udalerriz udalerriz. 2006

Errenta handiena / Mayor renta		Errenta txikiena / Menor renta	
Udalerría / Municipio	Errenta Renta	Udalerría / Municipio	Errenta Renta
Laukiz	80.338	Ubide	28.318
Getxo	63.134	Añana	28.266
Loiu	61.595	Harana / Valle de Arana	27.784
Maruri-Jatabe	59.101	Villabuena de Álava / Eskuernaga	27.664
Gamiz-Fika	59.100	Karrantza Harana / Valle de Carranza	27.550
Ereño	57.454	Elvillar / Bilar	26.751
Lezama	55.306	Baños de Ebro / Mañueta	25.924
Barrika	52.249	Lanciego / Lantziego	25.866
Berantevilla	52.165	Campezo / Kanpezu	25.608
Zigoitia	52.050	Kripan	24.440

Iturria: Geuk egina, pertsonen eta familien errentaren estatistikan oinarrituta (Eustat).

Fuente: Elaboración propia a partir de la Estadística de renta personal y familiar (Eustat).

A la vista de los datos, puede concluirse que la distribución de la renta percibida es diferente cuando se trata el ámbito personal y el familiar. Si bien municipios como Laukiz, Getxo, Loiu, Maruri-Jatabe, Zigoitia, Gamiz-Fika o Lezama ocupan los puestos más altos en la distribución tanto de la renta personal como de la familiar, otros como Sukarrieta, Gorniz o Elburgo/Burgelu sólo lo hacen cuando se trata de la renta personal, mientras que Ereño, Barrika y Berantevilla entran a formar parte de la lista cuando el análisis se realiza para la renta familiar. Lo que es más, aun los municipios que siguen perteneciendo a la lista, lo hacen, en general, ocupando puestos diferentes. Del mismo modo, la cola de la distribución es distinta cuando se analizan la renta personal y la familiar. Mientras que municipios como Villabuena de Álava/Eskuernaga, Harana/Valle de Arana, Karrantza Harana/Valle de Carranza, Elvillar/Bilar, Lanciego/Lantziego, Kripan o Baños de Ebro/Mañueta se encuentran en la lista de menor renta tanto personal como familiar, los municipios de Yécora, Errezil y Lanestosa sólo lo hacen para la renta personal y Campezo/Kanpezu, Añana y Ubide entran a formar parte de la lista cuando se trata de la renta familiar.

Datu hauek ikusita, ondorioztatu behar dugu errentaren banaketa ezberdina dela errenta pertsonena denean eta familia denean. Laukiz, Getxo, Loiu, Maruri-Jatabe, Zigoitia, Gamiz-Fika eta Lezama udalerriak dira pertsonen errentaren eta familien errentaren banaketan posturik altuenak dituztenak. Sukarrieta, Gorniz eta Elburgo/Burgelu, berriz, pertsonen errentaren banaketan bakarrik daude postu gorenetan. Ereño, Barrika eta Berantevilla zerrendako goiko postuetan daude soilik familien errentari erreparatzen badiogu. Are gehiago, goiko postuen zerrendan dauden udalerriak postu ezberdinetan ageri dira. Era berean, banaketaren azken postuak aldatzen dira pertsonen errenta edo familien errenta aztertzen baditugu. Adibidez, Villabuena de Álava/Eskuernaga, Harana/Valle de Arana, Karrantza Harana/Valle de Carranza, Elvillar/Bilar, Lanciego/Lantziego, Kripan eta Baños de Ebro/Mañueta udalerriak errenta txikieneko zerrendan daude, bai errenta pertsonalean bai familien errentan. Baina lekora, Errezil eta Lanestosa pertsonen errentan bakarrik daude errenta txikienen zerrendan, eta Campezo/Kanpezu, Añana eta Ubide familien errenta bakarrik daude errenta txikienen zerrendan.

Por otra parte, si bien tanto la renta personal como la renta familiar media registradas para cada uno de los territorios históricos ponen de manifiesto que en la C.A. de Euskadi no existen prácticamente diferencias de renta interterritoriales (la media registrada para cada uno de los territorios históricos no dista prácticamente de la media registrada para el conjunto de la Comunidad), esta homogeneidad se rompe al analizar los distintos municipios. En este caso, tanto la renta personal como la familiar denuncian la existencia de disparidades de renta amplias. Mientras el municipio que menos renta percibe dista entre un 37 (renta familiar) y un 43 (renta personal) por ciento de la media, el que más renta percibe supera dicha media entre un 71 (renta personal) y un 107 (renta familiar) por ciento.

### 3.3. Distribución territorial de la renta por barrios de residencia de las capitales

#### 3.3.1. *Distribución interterritorial de renta personal y familiar por capitales de los territorios históricos*

Las tablas 3 y 4 muestran la renta personal y familiar media, respectivamente, para los distintos barrios de las capitales de la C.A. de Euskadi para el año 2006. Como puede observarse, se presenta el valor de las mismas por orden descendente con respecto a la renta percibida. Mientras que los barrios que más renta registran están a la cabeza de la lista (Abando en Bilbao, Miramón-Zorroaga en Donostia-San Sebastián y Mendizorrotza en (Vitoria-Gasteiz), los barrios que menor renta registran se encuentran al final de las respectivas listas (Iturrigorri-Peñasal en Bilbao, Altza en Donostia-San Sebastián y Abetxuko para la renta personal o Casco Viejo Vitoria para la renta familiar en Vitoria-Gasteiz).

Como puede observarse en la fila inicial de la tabla 3, la renta personal media en Bilbao es igual a los 18.196 euros, lo que representa un 5 por ciento más que la media de la C.A. de Euskadi. La renta personal en Donostia-San Sebastián es de 20.056 euros, esto es un 16 por ciento superior a dicha media. En el caso de Vitoria-Gasteiz, este valor asciende a 17.597 euros lo que representa un 1 por ciento más que la media para el conjunto de la Comunidad Autónoma.

La correspondiente línea de la tabla 4 muestra que la renta familiar media en Bilbao se sitúa en los 39.679 euros, esto es un 2 por ciento superior a la media registrada para el conjunto de la C.A. de Euskadi. Este mismo dato para el caso de Donostia-San Sebastián asciende a 43.893 euros, es decir un 13 por ciento superior a la media de la Comunidad Autónoma. Finalmente, Vitoria-Gasteiz registra una renta familiar media de 39.506 euros, lo que representa el 2 por ciento más que la media para el conjunto de la C.A. de Euskadi.

El análisis de la renta personal y familiar entre las distintas capitales permite observar una de las perspectivas de la distribución de la renta interterritorial. A continuación se amplía el análisis para dibujar la perspectiva intraterritorial de la renta dentro de cada una de las capitales. Para ello, se analiza la renta personal y familiar de los distintos barrios adscritos a cada una de las capitales, así como la distribución de estas rentas en función de dicha división territorial.

Bestalde, lurralde historiko bakoitzean erregistratu diren batez besteko pertsonen errentak eta familien errentak erakusten dute Euskal AEn ez dagoela ia lurralde arteko ezberdintasunik (lurralde historiko bakoitzerako erregistratutako batez bestekoa ez da ia aldatzen erkidego osoaren batez bestekotik), baina homogeneotasun hori ez da mantentzen udalerriz udalerriko azterketa egiten badugu. Kasu horretan, pertsonen errentak nahiz familien errentak erakusten dute errenten arteko alde handia dagoela. Errenta txikiena jasotzen duen udalerririk batez bestekoa baino ehuneko 37 txikiagoa du familien errenta eta ehuneko 43 txikiagoa pertsonen errenta; errentarik handiena jasotzen duenak, berriz, pertsonen batez besteko errenta ehuneko 71n gainditzen du eta familien batez besteko errenta ehuneko 107an.

### 3.3. Errentaren lurralde-banaketa hiriburu eta auzoetan

#### 3.3.1. *Pertsonen eta familien errentaren lurralde arteko banaketa lurralde historikoetako hiriburu eta auzoetan*

3 eta 4. taulak pertsonen eta familien batez besteko errentak erakusten dituzte hurrenez hurren, Euskal AEko hiriburu eta auzoentzat, 2006. urtean. Ikus daitekeenez, haien balioa beheranzko hurrenkeran erakusten dugu, jasotzen den errentari dagokionez. Errentarik handienak dituzten auzoak zerrendaren hasieran daude (Abando Bilbon, Miramon-Zorroaga Donostian eta Mendizorrotza Gasteizen). Errentarik txikiena daukaten auzoak, berriz, zerrendaren amaieran daude (Iturrigorri-Peñasal Bilbon, Altza Donostian, eta Abetxuko pertsonen errentan eta Alde Zaharra familien errentan Gasteizen).

3. taulako hasierako zerrendan ikus dezakegunez, Bilbon pertsonen batez besteko errenta 18.196 eurokoa da. Horrek esan nahi du Euskal AEko batez bestekoa baino ehuneko 5 baino handiagoa dela. Donostiako pertsonen errenta 20.056 eurokoa da, hau da, batez besteko hori baino ehuneko 16 handiagoa. Gasteizen kasuan, balio hori 17.597 eurokoa da. Horrek esan nahi du autonomi erkidego osoaren batez bestekoa baino ehuneko 1 handiagoa dela.

4. taularen lerroak erakusten du Bilboko batez besteko errenta 39.679 eurokoa dela, hau da, Euskal AE osoan dagoen batez bestekoa baino ehuneko 2 gehiago. Datu hau, Donostiaren kasuan, 43.893 eurokoa da, hau da, autonomi erkidegoaren batez bestekoa baino ehuneko 13 gehiago. Azkenik, Gasteizen familien batez besteko errenta 39.506 eurokoa da, hau da, Euskal AE osoaren batez bestekoa baino ehuneko 2 gehiago.

Pertsonen eta familien errenten arteko analisiak, hiriburuen artean, errentaren lurralde arteko banaketaren ikuspegietako bat ikustea ahalbideratzen digu. Orain analisia handituko dugu, errentaren lurralde barruko ikuspegia erakusteko hiriburu bakoitzean. Horretarako, hiriburu eta auzo bakoitzaren pertsonen eta familien errentak aztertuko ditugu, eta errenta horiek lurralde-banaketa horren arabera nola dauden banatuta.

Auzoa / Barrio	Errenta Renta	Auzoa / Barrio	Errenta Renta	Auzoa / Barrio	Errenta Renta
Bilbao	18.196	Donostia-San Sebastián	20.056	Vitoria-Gasteiz	17.597
Abando	31.537	Miramon-Zorroaga	27.238	Mendizorrotza	29.902
Indautxu	29.992	Aiete	25.965	Zabalgunea / Ensanche	25.550
Castaños	25.705	Antiguo	25.890	San Martín	22.245
Deustu San Pedro de Deusto	20.616	Ibaeta	24.255	Lovaina	22.110
Basurtu	19.825	Erdialdea / Centro	23.404	Hego-mendeb. landagunea Zona Rural Suroeste	21.105
Alde Zaharra Casco Viejo Bilbao	19.818	Ategorrieta-Ulía	21.873	Eki. landagunea Zona Rural Este	20.814
Ciudad Jardín	19.738	Igeldo	20.963	Desamparados	19.686
Ametzola	19.621	Amara Berri	20.769	Ipar-mendeb. landagunea Zona Rural Noroeste	19.616
Begoña	19.441	Gros	20.521	Gazalbide	18.905
Ibarrekolanda	18.673	Zubieta	20.308	Arriaga-Lakua	18.652
San Adrián	18.265	Añorga	18.273	Ariznabarra	18.479
Txurdinaga	17.238	Egia	16.606	Santiago	16.986
Iralabarri	17.016	Intxaurrondo	16.345	Ali-Gobeo	16.982
Zurbaran	16.992	Loiola	15.432	Txagorritxu	16.932
San Inazio / San Ignacio	16.406	Miracruz-Bidebieta	15.321	El Anglo	16.493
Masustegi - M.Caramelo	16.259	Martutene	14.960	Sansomendi	16.487
Matiko	16.123	Altza	13.633	Santa Lucía	16.485
Solokoetxe	16.080			Arantzabela	15.998
Iturralde	16.076			Aranbizkarra	15.672
Santutxu	14.690			Coronacion	15.521
Uribarri	14.441			San Cristóbal	15.044
Zabala	14.209			Judimendi	14.950
Errekaldeberri	14.103			El Pilar	14.526
Olabeaga	13.144			Adurtza	14.358
Bolueta	13.137			Alde Zaharra Casco Viejo Vitoria	14.041
Abusu / La Peña	13.033			Arana	13.609
Zorrotza	13.027			Zaramaga	13.460
Atxuri	12.966			Abetxuko	13.325
Erribera / La Ribera	12.836				
Arabella	12.758				
Larraskitu	12.675				
Arangoiti	12.332				
Altamira	11.660				
Bilbo Zaharra Bilbao la Vieja	10.328				
Uretamendi	10.047				
San Frantzisko San Francisco	9.969				
Otxarkoaga	9.959				
Iturrigorri-Peñascal	9.210				

Iturria: Geuk egina, pertsonen eta familien errentaren estatistikan oinarrituta (Eustat).  
Fuente: Elaboración propia a partir de la Estadística de renta personal y familiar (Eustat).

Auzoa / Barrio	Errenta Renta	Auzoa / Barrio	Errenta Renta	Auzoa / Barrio	Errenta Renta
Bilbao	39.679	Donostia-San Sebastián	43.893	Vitoria-Gasteiz	39.506
Abando	69.670	Miramon-Zorroaga	72.280	Mendizorrotza	69.777
Indautxu	65.717	Aiete	61.892	Zabalgunea / Ensanche	56.752
Castaños	54.553	Antiguo	55.734	San Martín	55.030
Begoña	47.180	Igeldo	54.873	Hego-mend. landag. Zona Rural Suroeste	52.412
Deustu San Pedro de Deusto	46.671	Ibaeta	51.755	Gazalbide	51.503
Ciudad Jardín	43.984	Ategorrieta-Ulía	49.861	Lovaina	48.550
Basurtu	43.740	Erdialdea / Centro	48.071	Ipar-mend. landag. Zona Rural Noroeste	45.480
Ibarrekolanda	43.141	Amara Berri	45.658	Desamparados	43.902
Ametzola	41.995	Zubieta	44.791	Arantzabela	42.167
Txurdinaga	41.144	Gros	43.819	Santiago	41.896
Alde Zaharra Casco Viejo Bilbao	39.132	Añorga	42.950	Eki landag. Zona Rural Este	41.089
Zurbaran	38.324	Intxaurreondo	36.615	Ariznabarra	40.437
San Adrián	36.647	Egia	34.956	Santa Lucía	39.577
Iralabarri	36.272	Miracruz-Bidebieta	34.724	Txagorritxu	39.195
Masustegi - M. Caramelo	35.635	Loiola	34.574	Aranbizkarra	38.865
Solokoetxe	35.141	Martutene	32.610	Arriaga-Lakua	38.250
San Inazio San Ignacio	34.836	Altza	30.775	Ali-Gobeo	38.130
Iturralde	34.409			El Anglo	36.100
Matiko	33.944			Sansomendi	36.064
Santutxu	31.743			Coronacion	34.382
Uribarri	30.896			El Pilar	34.337
Errekaldeberri	30.267			San Cristóbal	33.327
Zorrotza	29.011			Adurtza	32.672
Bolueta	28.948			Judimendi	31.339
Zabala	28.678			Zaramaga	31.100
Abusu / La Peña	28.569			Arana	30.747
Arangoiti	27.933			Abetxuko	29.406
Atxuri	26.774			Alde Zaharra Casco Viejo Vitoria	28.073
Larraskitu	26.652				
Olabeaga	26.559				
Arabella	25.801				
Altamira	24.769				
Erribera / La Ribera	24.402				
San Frantzisko San Francisco	22.517				
Otxarkoaga	21.883				
Uretamendi	21.324				
Bilbo Zaharra Bilbao la Vieja	21.126				
Iturrigorri-Peñascal	20.048				

Iturria: Geuk egina, pertsonen eta familien errentaren estatistikan oinarrituta (Eustat).  
Fuente: Elaboración propia a partir de la Estadística de renta personal y familiar (Eustat).

### 3.3.2. **Distribución intraterritorial de renta personal y familiar por barrios de residencia de las capitales de los territorios históricos**

#### 3.3.2.1. *Distribución por barrios en Bilbao*

##### 3.3.2.1.1. Distribución por barrios en Bilbao: Renta personal

Tal y como muestra la tabla 3, la renta personal media de Bilbao, se sitúa en 18.196 euros, si bien la mediana de la distribución, esto es, el valor de la renta que divide los barrios registrados en dos mitades, se sitúa entre los 14.690 euros para Santutxu y los 16.076 euros registrados para Iturralde. Dada la diferencia registrada entre la media y la mediana, puede concluirse que existe una concentración de la renta personal en barrios como Abando, Indautxu, Castaños o San Pedro de Deusto. Estos barrios presentan una renta media entre un 73 por ciento (en el caso de Abando) y un 13 por ciento (en el caso de Deusto) superiores a la media para la capital bilbaína, mientras que barrios como Basurtu, Casco Viejo Bilbao, Ciudad Jardín, Ametzola, Begoña, Ibarrekolanda y San Adrián se sitúan en torno a la media. En el extremo opuesto están los barrios de San Francisco, Otxarkoaga e Iturrigorri-Peñasal que perciben una renta personal inferior a 10.000 euros, lo que representa un nivel de renta menor del 55 por ciento de la media para el conjunto de la capital.

##### 3.3.2.1.2. Distribución por barrios en Bilbao: Renta familiar

La renta familiar media en Bilbao (tabla 4) alcanza los 39.679 euros, mientras que la mediana de la distribución se sitúa en los 33.944 euros registrados para el barrio de Matiko y los 31.743 euros registrados para el barrio de Santutxu. En este caso, como sucede con la renta personal, la diferencia entre la media y la mediana da muestra una vez más de la existencia de una concentración en renta que en este caso pone a la cabeza a los barrios de Abando, Indautxu y Castaños junto con el barrio de Begoña y de San Pedro de Deusto, cuyas rentas familiares superan la media de Bilbao entre un 76 (Abando) y un 17 (San Pedro de Deusto) por ciento. A la cola de la distribución aparecen los barrios de San Francisco, Otxarkoaga, Uretamendi, Bilbao la Vieja e Iturrigorri-Peñasal, cuyas respectivas rentas son inferiores al 57 por ciento de la media.

#### 3.3.2.2. *Distribución por barrios en Donostia-San Sebastián*

##### 3.3.2.2.1. Distribución por barrios en Donostia-San Sebastián: Renta personal

La renta personal media en Donostia-San Sebastián (ver tabla 3), se sitúa en los 20.056 euros. En este caso, el valor se sitúa próximo al valor mediano (20.521) registrado para Gros. En este caso, por tanto, la dispersión de la renta es menos acentuada que en el caso de la capital vizcaína, de manera que los barrios con mayor nivel de renta personal perciben una renta entre el 16 por ciento (Centro) y el 35 por ciento (Miramón-Zorroaga) superiores a la media. Los barrios de Ategorrieta-Ulía, Igeldo, Amara Berri, Gros y Zubieta gozan de un nivel de renta personal muy cercano a la media, mientras que en el extremo opuesto de la distribución se encuentran los barrios de Martutene y Altza cuyas rentas representan menos del 75 por ciento de la renta media para la capital guipuzcoana.

### 3.3.2. **Pertsonen eta familien errentaren lurralde-banaketa lurralde historikoetako hiriburuetan, auzoz auzo**

#### 3.3.2.1. *Banaketa Bilboko auzoetan*

##### 3.3.2.1.1. Bilboko auzoetako banaketa: pertsonen errenta

3. taulak azaltzen duenez, Bilboko pertsonen batez besteko errenta 18.196 eurokoa da. Halere, banaketaren mediana, hau da, erregistratutako auzoak bitan zatitzen dituen errentaren balioa, 14.690 euroren (Santutxun) eta 16.076 euroren (Iturralden) artean dago. Batezbestekoaren eta medianaren artean dagoen aldea kontuan izanik, esan dezakegu pertsonen errentaren kontzentrazioa dagoela zenbait auzotan: Abandon, Indautxun, Castañosen eta Deustun. Bilboren batezbestekoa baino ehuneko 73 handiago eta ehuneko 13 handiago artean dago auzo horien batez besteko errenta (Abando eta Deustu hurrenez hurren). Aldiz, Basurtun, Alde Zaharrean, Ciudad Jardín, Ametzolan, Begoñan, Ibarrekolandan eta San Adrianen batezbestekoaren inguruan dago errenta. Kontrako muturrean daude San Frantzisko, Otxarkoaga eta Iturrigorri-Peñasal auzoak, jasotzen duten errenta personala 10.000 euro baino txikiagoa baita, hau da hiriburuaren batez besteko errentaren ehuneko 55 txikiagoa.

##### 3.3.2.1.2. Bilboko auzoetako banaketa: familien errenta

Bilboko familien errenta batez beste (4. taula) 39.679 eurokoa da. Mediana berriz 33.944 euroren (Matiko) eta 31.743 euroren (Santutxu) artean dago. Kasu horretan, errenta pertsonalarekin gertatzen denez, batezbestekoaren eta medianaren arteko aldeak berriro ere erakusten du errenta kontzentratzen dela. Kasu honetan Abando, Indautxu eta Castaños auzoak Begoña eta Deusturekin batera daude; auzo horietako familien errentak Bilboko batezbestekoa gainditzen du, hura baino ehuneko 76 handiago (Abando) eta ehuneko 17 handiago (Deustu) artean. Banaketaren amaieran San Frantzisko, Otxarkoaga, Uretamendi, Bilbo Zaharra eta Iturrigorri-Peñasal auzoak daude. Haien errentak batezbestekoaren ehuneko 57 baino txikiago dira.

#### 3.3.2.2. *Banaketa Donostiako auzoetan*

##### 3.3.2.2.1. Banaketa Donostiako auzoetan: pertsonen errenta

Donostian pertsonen batez besteko errenta (ikus 3. taula) 20.056 eurokoa da. Kasu honetan, batezbestekoa medianaren (20.521 euro, Grosen) antzekoa da. Beraz, kasu honetan errentaren sakabanaketa ez da Bizkaiko hiriburuan bezain handia. Horregatik, pertsonen errenta handiena duten auzoetan, errenta batezbestekoa baino ehuneko 16 handiago (erdialdea) eta ehuneko 35 handiago (Miramon-Zorroaga) artekoa da. Ategorrieta-Ulía, Igeldo, Amara Berri, Gros eta Zubieta auzoetan pertsonen errentaren maila batezbestekotik oso hurbil dago. Banaketaren aurkako muturrean, berriz, Martutene eta Altza auzoak daude; haietan, errentak Gipuzkoako hiriburuaren batez besteko errentaren ehuneko 75 baino txikiago dira.

### 3.3.2.2. Distribución por barrios en Donostia-San Sebastián: Renta familiar

La renta familiar media para la capital del territorio histórico de Gipuzkoa alcanza los 43.893 euros, si bien la mediana de la distribución se sitúa en los 44.791 euros registrados para el barrio de Zubieta. Los datos ratifican la conclusión alcanzada para la renta personal, puesto que la dispersión en renta es menor que la registrada en el caso de Bilbao. Concretamente, los barrios que más renta familiar presentan son Igeldo, Antiguo, Aiete y Miramón-Zorroaga, cuyas rentas familiares superan la media de la capital entre un 25 (Igeldo) y un 65 (Miramón-Zorroaga) por ciento. Los barrios que menor renta familiar presentan son Martutene y Altza, si bien estos dos barrios gozan de un nivel de renta familiar superior al 70 por ciento de la media de Donostia-San Sebastián.

### 3.3.2.3. Distribución por barrios en Vitoria-Gasteiz

#### 3.3.2.3.1. Distribución por barrios en Vitoria-Gasteiz: Renta personal

La renta personal media en Vitoria-Gasteiz (ver tabla 3), se sitúa en los 17.597 euros, mientras que la mediana de la misma está ubicada entre los 16.493 euros de renta registrados para el barrio de El Anglo y los 16.932 euros registrados para Txagorritxu. Mientras que los barrios de mayor renta perciben entre un 11 por ciento (Zona Rural Noroeste) y un 70 por ciento (Mendizorrotza) más renta que la media, los barrios de Gazalbide, Arriaga-Lakua y Ariznabarra registran una renta personal muy similar a la media de la capital de Álava. El extremo de menor renta de la capital lo ocupan los barrios del Casco Viejo Vitoria, Arana, Zaramaga y Abetxuko con una renta inferior al 80 por ciento de la media para el conjunto de Vitoria-Gasteiz.

#### 3.3.2.3.2. Distribución por barrios en Vitoria-Gasteiz: Renta familiar

En lo que respecta a la renta familiar de Vitoria-Gasteiz (tabla 4), la renta familiar media alcanza los 39.506 euros. Esta cifra no dista mucho del valor mediano que se encuentra entre los 39.195 euros registrados para Txagorritxu y los 38.865 euros registrados para Aranbizkarra. Como puede deducirse, en este caso la dispersión en renta es menos acentuada que en el caso de la capital vizcaína, especialmente en lo que respecta a la dispersión de los barrios más pobres. Esta realidad se observa a la luz de las rentas percibidas por los barrios más ricos de la capital de Álava. Mientras que San Martín, Ensanche y Mendizorrotza perciben una renta familiar entre el 39 (San Martín) y el 77 por ciento (Mendizorrotza) superior a la media, los barrios de Abetxuko y Caso Viejo-Vitoria perciben rentas familiares que representan en torno al 74 y 71 por ciento de la media, respectivamente.

En conclusión, el análisis intraterritorial de la renta en las distintas capitales de la C.A. de Euskadi, esto es, al comparar las distintas capitales, pone de manifiesto la existencia de diferencias en renta más significativas que las que se observan en el análisis interterritorial. Entre las diferencias, no obstante, cabe reseñar la mayor dispersión en renta existente en la capital Bizkaina con respecto a las capitales de los territorios históricos de Álava y Gipuzkoa.

### 3.3.2.2. Banaketa Donostiako auzoetan: familien errenta

Familien errenta, Gipuzkoa lurralde historikoaren hiriburuan, 43.893 eurokoa da. Banaketaren mediana, berriz, 44.791 eurokoa da (Zubieta auzokoa). Datuek pertsonen errentarako ateratako ondorioa berresten dute, errentaren sakabanaketa Bilbon baino txikiagoa da. Zehazki, familien errenta handiena duten auzoak Igeldo, Antiguo, Aiete eta Miramon-Zorroaga dira. Auzo horietako famili errentek hiriburuaren batezbestekoa gainditzen dute ehuneko 25aren (Igeldo) eta ehuneko 65aren (Miramon-Zorroaga) artean. Famili errentarik txikiena daukaten auzoak Martutene eta Altza dira. Halere, haietan, familien errentaren maila Donostiaren batezbestekoaren ehuneko 70 baino handiagoa da.

### 3.3.2.3. Banaketa Gasteizko auzoetan

#### 3.3.2.3.1. Banaketa Gasteizko auzoetan: pertsonen errenta

Gasteizen pertsonen batez besteko errenta (ikusi 3. taula) 17.597 eurokoa da. Haren mediana, berriz, 16.493 euroen (El Anglo) eta 16.932 euroen (Txagorritxu) artean dago. Errenta gehien jasotzen duten auzoek batez besteko errenta baino ehuneko 11 gehiagoren (ipar-mendebaldeko landagunea) eta ehuneko 70aren (Mendizorrotza) artean daude. Gazalbide, Arriaga-Lakua eta Ariznabarra auzoetako pertsonen errenta, ordea, Arabako hiriburuaren batezbestekoaren oso antzekoa da. Hiriburuko errentarik txikiak Alde Zaharra, Arana, Zaramaga eta Abetxuko auzoetan daude. Haietan, errenta Gasteizko batez besteko errentaren ehuneko 80 baino txikiagoa da.

#### 3.3.2.3.2. Banaketa Gasteizko auzoetan: familien errenta

Gasteizko familien errentari dagokionez (4. taula), familien batez besteko errenta 39.506 eurokoa da. Kopuru hori ez dago medianatik oso urrun: mediana 39.195 euroen (Txagorritxu) eta 38.865 euroen (Aranbizkarra) artean dago. Ondorioztatu ahal dugunez, kasu honetan errentaren sakabanaketa txikiagoa da Bizkaiko hiriburuan baino, batez ere auzorik txiroenei dagokienez. Errealitate hau Arabako auzorik aberatsenek jasotzen dituzten errentekin ikusten da. San Martín, Zabalgunea eta Mendizorrotzan familien errenta batezbestekoa baino ehuneko 39 gehiago (San Martín) eta ehuneko 77 gehiago (Mendizorrotza) artean dago. Abetxukon eta alde Zaharrean, berriz, familien errentak batezbestekoaren ehuneko 74 eta 71 dira.

Ondorioz, Euskal AEko hiriburu etako errentaren lurralde barruko analisiak (hau da, hiriburuak alderatuta) erakusten digu errentan ezberdintasun handiagoak daudela lurraldeen artean baino. Ezberdintasunen artean, ordea, esan behar dugu Bizkaiko hiriburuan errenta sakabanatuago dagoela Araba eta Gipuzkoako hiriburu etan baino.

## 4. DISTRIBUCIÓN DE LA RENTA POR EDAD Y GÉNERO

### 4.1. Distribución de la renta por edad

#### 4.1.1. Distribución de la renta personal por edad

El gráfico 8 muestra la distribución de la renta personal *nominal* media en la C.A. de Euskadi para la población de 18 y más años de edad para los años 2001, 2003 y 2006. A lo largo de todo el periodo se observa una evolución que se repite para cada uno de los años analizados. El primer grupo de edad (18-19 años) es el que menor renta recibe. Los siguientes grupos de edad presentan un nivel de renta cada vez mayor hasta alcanzar el máximo en el grupo formado por las personas de entre 50 y 54 años. A partir de este momento, la renta percibida va disminuyendo para los sucesivos grupos de edad, si bien el nivel de renta alcanzado por el grupo de 95 y más años es superior al nivel del primer grupo mencionado (18-19 años). De esta evolución puede concluirse que son los extremos de la distribución, formados por los más jóvenes y por los más mayores de la sociedad, los que presentan menores niveles de renta, mientras que las personas de entre 40 y 59 años son las que gozan de una mayor renta personal media.

## 4. ERRENTAREN BANAKETA ADINAREN ETA GENEROAREN ARABERA

### 4.1. Errentaren banaketa adinaren arabera


#### 4.1.1. Pertsonen errentaren banaketa adinaren arabera

8. grafikoak pertsonen batez besteko errenta *nominalaren* banaketa erakusten du Euskal AEn, 18 urtetik gorako pertsonentzat, 2001, 2003 eta 2006. urteetarako. Denboraldi osoan zehar, aztertutako urteetako bakoitzerako errepikatzen den bilakaera ikusten da. Lehenengo adin-taldea (18-19 urteak) errenta txikiena jasotzen duen taldea da. Hurrengo adin-taldeen gero eta errenta-maila handiagoa daukate; gehiena 50 eta 54 urte arteko taldeak dauka. Une horretatik aurrera, jasotzen den errenta gero eta txikiagoa da hurrengo adin-taldeen. Halere, 95 urtetik gorako errenta lehenengo taldearena (18-19 urte) baino handiagoa da. Bilakaera horretatik ondorioztatu ahal dugu banaketaren muturrak, gazteenena eta zaharrenena, direla errenta maila txikiagoak dituztenak. 40 eta 59 urte arteko pertsonak, ordea, batez besteko errenta pertsonalik handiena daukate.

Distribución de la renta personal nominal por edad

8

Pertsonen errenta nominalaren banaketa adinaren arabera



Iturria: Geuk egina, pertsonen eta familien errentaren estatistikan oinarrituta (Eustat).

Fuente: Elaboración propia a partir de la Estadística de renta personal y familiar (Eustat).

Esta evolución común para todos los años analizados (2001, 2003 y 2006) no debe confundirse, sin embargo, con la evolución del nivel de renta a lo largo de la vida de las personas. Esto es, no tendría por qué suceder que un ciudadano que en el año 2006 cumpla 19 años espere observar cómo su renta evoluciona de la manera aquí descrita. Para poder conocer la

Aztertutako urte guztietarako eboluzio komun hau (2001, 2003 eta 2006) ez da nahastu behar, ordea, pertsonak bizitzan zehar duten errenta-mailaren bilakaerarekin. Hau da, ez da zertan gertatu behar 2006. urtean 19 urte betetzen dituen pertsona baten errenta hemen azaldutako eran eboluzionatzea. Errentak hiritar talde jakin baten bizitzan zehar nola



evolución de la renta a lo largo de la vida de un determinado grupo de ciudadanos sería necesario reordenar los datos y realizar el análisis, por ejemplo, por cohortes de edad. En este caso, dada la división de los grupos de edad, no es posible hacer un análisis preciso por cohortes, si bien, debe reseñarse la necesidad del mismo para abordar la cuestión sobre la verdadera evolución del poder adquisitivo del que gozan los ciudadanos y ciudadanas a medida que cumplen años.

Además, a la hora de interpretar los datos, debemos tener en cuenta la evolución socio-económica que ha tenido lugar en las últimas décadas, caracterizada por una incorporación al mercado laboral más tardía en relación con la historia pasada. Muchos de los más jóvenes siguen estudiando con 18, 19 e incluso más años, por lo que los dos primeros grupos de edad (18-19 años y 20-24 años) podrían presentar un nivel de renta más bajo debido, precisamente, al grado de inactividad registrado entre los mismos. Por otra parte, la población de los grupos de mayor edad está formada en su mayoría por mujeres, grupo que presenta una mayor esperanza de vida con respecto a los varones. A esta realidad debe sumarse la histórica ocupación de la mujer en lo que respecta al mercado laboral. Las generaciones de mujeres que durante los años 2001, 2003 y 2006 tenían una edad avanzada (65 ó más años), en su mayoría, o bien no habían participado en el mercado laboral a lo largo de sus vidas o bien lo habrían hecho de una forma mucho más interrumpida y con remuneraciones inferiores a las percibidas por el hombre. Este hecho, basado en un modelo familiar en el que la mujer está eminentemente dedicada a las labores domésticas y al cuidado de mayores y niños, acorta la capacidad de cotización de la mujer a la seguridad social, lo que se traduce en una menor pensión de jubilación, cuando no en una ausencia de la misma. Así pues, la renta percibida por las mujeres más mayores proviene en su mayoría de las pensiones de viudedad reconocidas que, en general, son de cuantía inferior a las percibidas tanto por las generaciones en edad laboral como por las generaciones de pensionistas más jóvenes en las que, entre otros factores, están incluidos un mayor número de hombres con mayores rentas.

El análisis pormenorizado de los datos para el año 2006 revela que los jóvenes de entre 25 y 29 años perciben una renta media de 13.742 euros anuales. Este hecho caracteriza a la conocida generación de «milleuristas»; esto es el grupo de jóvenes cuya renta toma un valor próximo a los 1.000 euros mensuales. A esta generación le sigue muy de cerca el grupo formado por los jóvenes de 30-34 años con una renta media en el año 2006 de 17.712 euros. El máximo nivel de renta se encuentra en el grupo de edad 50-54 años, con 23.504 euros anuales. La población recién jubilada (65-69 años) presenta una renta media de 16.156 euros, cifra que se reduce hasta los 13.191 euros cuando el grupo lo forman los de edades comprendidas entre 80 y 84 años y hasta los 10.020 euros para los mayores de 94 años.

En lo que respecta a la evolución temporal por grupos de edad, la tendencia ha sido creciente para la mayoría de los casos. Así, la renta de los jóvenes de 20-24 años pasaba de los 4.522 euros en el año 2001 a 4.741 euros en 2003 y 6.298 euros en el año 2006. La renta de los jóvenes entre 24 y 29 años pasaba de los 10.378 euros en 2001 a 13.742 en 2006. Las rentas de las personas entre 50-54 años experimenta un aumento desde los 17.633 euros (2001) hasta los 23.504 euros (2006), mientras que los recién jubilados (grupo de edad 65-69 años) registran un aumento desde los 11.120 euros en el año 2001 hasta los 16.156 del año 2006, pasando por los 12.062 registrados para el año 2003.

eboluzionatzen duen jakin ahal izateko, beharrezkoa litzateke datuak berrantolatzea eta analisisa, adibidez, adin-tarteen arabera egitea. Kasu honetan, adin-taldeen banaketa ikusita, ezin daiteke taldeen araberako analisi zehatzik egin. Halere, haren premia azpimarratu behar dugu, herritarrek urteak bete ahala daukaten eroste ahalmenaren benetako eboluzioari helduko bazaio.

